



# Balentine



**Kongoko  
kontuak**  
Hango berriak  
Osatarrek ekarriak



*Balendine Albizu  
hil zaigu*



baleike



U

RRIA IZAN arren, **Baleike** hau oso ugaria dator. Bete-betekoa. Berrikuntza eta guzti. Ze berri atalean, **Balendiñe Albizu poetaren heriotza** aipatu dugu. Baita albiste pozgarriagoak ere.

Oraingoan **jardunian** aritzeko **Kongon** izan diren hiru zumaia gonbidatu ditugu. Jardun interesgarria bezain sakona. Ezagutu nahi al duzue Xanti Osak, Joseba Ossak eta Lutxi Arsuagak bizitako esperientzia ahaztezina?

Afrikara joan gabe hemen bertan ere *ur haunditan* ibiltzen iaioak gara. Ospakizunez blai egindako orrialdeak aurkituko dituzu atal horretan. **Anade elkarteak eta Zumaiako futbol taldeak** urteak betetzen dituzte aurten. Lehenengoak **50** eta bigarrenak **25**. Atzera begiratu eta iraganeko kontuak gogoratzeko aukera aproposa izango duzu.

Uretatik olarru ederraskoa harrapatuta atera garenez, *olarru-zopa* gozozoa prestatu dizugu: **herriko euskararekin sexu harremanak** izan nahi? Badakizu, euskaraz hitz egitea egundoko gozamina da.

Hego haize honekin *izerdi patsetan* ari gara. Eta kirolariak zer esanik ez. **Iñaki Osa Goikoetxea** eta **Paulo Agirrezabalaga** bai behintzat.

Lehentxeago orain dela berrogeita hamar eta hogeita bost urteko kontuak gogoratzeko proposamena egin dizugu. Bada orain askoz atzerago joateko eskatuko dizugu. **Zarrak berri** atalean **ospitaleen** berri izango duzu. Horrenbeste kontu zaharrekin berriak ahaztu. Ederra marka!! Berrikuntzak izan eta ez aipatzea pekatu handi xamarra, ezta? Garai batean elizako kontuez ezer ez jakitea bezain pekatu larria. Eliza aipatuta, *trinidad santua* zer den jakin nahi?

Klaseak ematen hasita, ba al dakizu zer esan nahi duen portugesezko *aluga-se* esaldiak? **Lisboan** dagoen **Xabier Aizpuruak** guk baino hobeto azalduko dizunez...

Berrikuntzekin bukatzeko *koadrilen bueltan* atala eskaintzen dizugu. Herriko koadrilek betetzeko orrialdea da. Adi egon !! Hurrengo agian zureari tokatuko zaio eta!! Lehenengo **Madame Kontxesi eta bere koadrilarri** tokatu zaio. Baina nortzuk dira? Esan dizugu hasieran urriko **Baleike** ugaria dela. Hasi lehenbailehen irakurtzen!!

**HERRI ALDIZKARIA**

juan Belmonte, 29 behea  
tel.: 943 86 15 45  
faxa: 943 86 17 42  
email:  
baleike@topagunea.com

**Argitaratzailea**

BALEIKE KULTUR ELKARTEA  
**Administrazio batzordea**  
Esther Etxeberria  
Xabier Azkue

**Erredakzio batzordea**

Ibon Manterola  
Eneko Dorronsoro  
Itxaso Ibarra

Aitor Manterola

**Koordinatzailea**  
Aitor Manterola

**Kazetariak**  
Eneko Dorronsoro  
Ibon Manterola  
Itxaso Ibarra  
Aitor Manterola

**Oikialdean orriaren arduraduna**  
Xabier Aizpuru

**Kolaboratzaileak**  
Miriam Romatet, Xabier Aranguren, Jon Maia, Jon Sudupe, Esti Esteibar, Dani Carballo, Inaxio Tolosa,

Inaxio Manterola, Belen Golmaio, Izaga Garzia, Koldo Landaluze, Beñat Fernandez de Arroyabe, Ihintz Linazisoro, Egoitz Lizaso, Garikoitz Telleria, Natur Taldea

**Argazkiak**  
Baleike.

**Diseinua eta maketazioa**  
Roberto Gutierrez

**Hizkuntz zuzenketa**  
Baleike

**Publizitatea**  
943 86 15 45 tel. (Esther)

**Inprimategia**  
Antza Inprimategia (Lasarte-Oria)

**Tirada**  
1.000 ale  
Lege gordailua  
SS-405/94  
ISSN  
1136-8594


**Azaleko irudia**  
Eva Franco

**Baleikek** ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



**Zumaiako Udala**



## Berriz ere, euskara baztertuta

Xabier Azkue

HONEZKERO JAKINGO duzue nola Ayra Durexko atzealde horretan babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzen hastera doazen. Uda baino lehen egin zuten zozketa eta, zorionekoa ni, 120 lagun horien artean egotea egokitu zitzaidan. Hasi zozketatik eta gaur egunera arte izan den prozesuan, ordea, bada behin eta berriz mintu nauen puntu bat: Zumaia Lantzen enpresak euskararekiko erakutsi duen begirune eza, hain zuzen.

Badakit ekitaldi publikoetan eta bilera orokorretan arazoak egon litezkeela hainbat gauza euskara hutsean egiteko eta bietara egiteak ere dena luzatu eta astun bihurtzen duela, baina batez ere idatzizko komunikazioan akats larria iruditzen zait euskarari tokiarik ez egitea. Bietara etorri zen gutun labur bat izan ezik, gainerako guztia gaztelaniaz bakarrik egon da: zerrendetako izenburuak, bileretako deiak, ordainketarako oharrak...

Enpresa horren jabe eta bultzatzaile Zumaia Udala den aldeetik, iruditzen zait euskarari dagokionez udalak dituen irizpide eta konpromisoak bete beharko litzukeela Zumaia Lantzenek ere, jakinarazpen orokorrak egin behar direnean, behintzat. Orritok bat edo bi besterik ez direnean ez dut uste denbora eta lan karga aitzakia direnik euskaraz ez jartzeko. Udalari era horretako lanetan laguntzea ez balegokio, badira hainbat enpresa horrelako testuak ondo, azkar eta modu onean itzultzen dituztenak.

Beraz, Zumaia Lantzeneko Tomas Eizmendi jaunari eskatzen diot hurrena prestatu behar dituzten gutun eta bestelako agirietan euskarari toki egin diezaiola, eta Zumaia Udalari, berriz, azken urteotan Udalean bertan egin duen bezalaxe, zaindu eta bultzatzea euskararen erabilera bere inguruko erakundeetan ere.

Egoera zuzenduko den itxaropena badut. Ea hala den.

## ITZIAR ASKATU!

ITZIARREN ASKATASUNAREN ALDEKO PLATAFORMA

UDA HASIERAN, informazioa herri osora zabaldu genuen Zumaia herriak Itziar Arrizabalagaren egoeraren berri jakin zezan. Uda garaia lanerako txarra izaten denez, orain udazkenean arazoa berriro eskutan hartu dugu eta gure asmoen berri agertu nahi genuke.

Kondenaren hiru laurdenak bete dituen orori Espainiako legediak behin behineko askatasuna ematen diola denok dakigu, baina preso politikoko euskaldunei, zoritxarrez, ez diote aplikatzen euren araudi hau. Beraz, bakarrik ibilita ezer gutxi lortzen dela jakitun izanik, Itziarren askatasunaren alde Zumaia osoak parte hartzeko aukera ireki dugu. Honela, lehenbizi Zumaia alderdi politikoko, sindikato, dendari, lantegi, kultura, kirol eta gastronomiko elkarte eta erakunde orori askatasun honen aldeko atxikimendu hau eskatuko diegu, honela herri osoaren babesarekin eskaria dagokion ministerioa bidali ahal izango dugu.

## Ondo bizi gara, ala?



Joseba Ossa

"AFRIKA SAKONEAN zer moduz bizi dira, ba?" galdetu zidan lagun batek, urduritasunak baretzeko esku batean zigarroa eta bestean txikito bat zuela, ironia puntu batez. "Jateko eta edateko gutxi dute, baina bizitza patxadaz hartzeko gaitasun izugarria ere bai" atera zitzaidan, bat-batean.

Eta Kongon 10 urte egin ondoren Justo Osa zumaiaarrak esandako hitz batzuk etorri zitzaizkidan gogora: "Hemen, janariak eskuratzeko eta malariaren kontrako botika erosteko diru pixka bat izanez gero, Zumaian baino hobeto bizi leike. Hemen, jendeak badaki patxadan egoten. Zumaian, berriz, Europa osoan bezala, jendeak denetarik dauka: dirua eta gauzak sobran, baina bizitzaz benetan gozatzeko ez gaitasunik, ez denborarik. Jendeak ez dauka barruko pakerik".

"Barruko bakea..." pentsatu nuen nere baitan. "Barruko bakea" hain beharrezkoa, hain ederra, eta hainbesterentzat hain zaila... Hemen bapo jaten dugu, ederki janzen gara, etxe ederrak ditugu, ez zaigu ezer falta, baina... Ondo bizi al gara? Geure buruarekin bakean bizi al gara?

Behin Zumaiaiko itsasbatterreko txoko lasai batean bakar-bakarrik nengoe-la, ezagun bat hurbildu, eta "Zerbait gertatzen al zaizu?" galdetu zidan. Nik ezetz, oso ondo nengoe-la, patxada ederrean. "Benetan? Ez dizut ikusten ez libururik, ez irratirik... ez daukazu ezer denbora pasatzeko?" jarraitu zuen, nitaz errukituko balitz bezala. Azaldu nion gustora egoteko ez nuela gauza handirik behar. Ikuskizun ederra neukala, eta asko gustatzen zaidala noiz-behinka bakarrik egotea, ezer egin gabe, isiltasunean, itsasora edo mendira begira...

Ez nuen konbentzitu. Beste asko bezala, harritu egin zen, eta ez dakit lotsa pixka bat ere ez ote zuen sentitu. Nik, berriz, lasai eta gustora segitu nuen, pentsatuz zoritxarrez oraindik jende askok ez duela ikasi bere buruarekin bakean bizitzen. Afrikatik etorri beharko ote dute guri gauzarik garrantzitsuenak erakustera?

Jada, gure artean egon behar lukeen Ixiar orain Asturiasko presondegi batean dago, honek familiarentzat suposatzen duen gastuekin, jakina, eta lehen baino hobeto badago ere, ez dakigu aurrerantzean funtzionarioek nola jokatuko duten, kartzela bakoitzak askatasun osoa baitu nahi duen bezala jokatzeko eta funtzionario bati edo zuzendariari buruan haizeak jotzea aski litzateke Itziar berriro lehengo egoerara itzultzeko, hau da, egunean 20 edo 22 ordu ziegan bakarrik, miaketa pertsonalak egiten narru gorriarik jarriarazi, ziegako miaketa egiterakoan koardenoak, liburuak edo boligrafoak ostu, leihoa txapa batez estali, jipoiak...

Beraz, injustizia hau ezin dugunez onartu, Zumaiaiko herriari gonbidapena egiten diogu Ixiarren behin behineko askatasuna lortzeko abian-jarriko dugun ekintzetan parte har dezan.

Aurrez gure eskerrik beroenak.

# Garaian pikuak, edo udazkenean faszikuluak



Miriam Romatet

DUELA HILABETE, irailaren hasiera eta biztanleriaren gehiengoak lanera itzuli behar zuela eta, telebistako albistegietan oporren amaierako depresio edo sindrome berezi bati buruz aritu ziren; harritu egin ninduen, lanera itzuli beharrak ez gaitu noski pozten, baina hortik sindromera... Aspaldiko abesti batek zioen bezala "I don't like Mondays" pixka bat aldatu eta iraileko bluesari ekingo diogu.

Dena den, lasai irakurle maiteok, udazkeneko egun laburragoen tritura eta lanera itzultzearen errutina arintzeko gizarreak (edo beti diogun bezala, Corte Inglesak) sortu baitu errezetarik eta kontraindikaziorik gabeko botika: faszikuluak!!

Udazkenero, perretxikoen antzera ugaltzen zaizkigun era guztietako faszikulu horien arrazoia edo funtzioa ezagutzen dugu orain: sindrome larri horri aurre egiteko bide bat eskaintzea; ale bat erostean berehala hurrengoaren zain gaude, eta horrela denbora oharkabean joaten zaigu (gero urte amaierako edo udaberriko krisiak iritsiko zaizkigu, bakoitza bere sindromearekin, baina tira,...).

Eta bene-benetan, nor da atalkako altxor horien amuari inoiz koxk egin gabea? Nik behinik behin bilduma bat edo besteren lehen eta bigarren aleak erosi izan ditut, nahiz eta berehala aspertu. Dena den, nik galdera bat dut faszikulu hauei buruz: nondik ateratzen dituzte horiek sortzeko ideiak? Zein jeniok asmatzen ditu? Kongresu bereziak dituzte proposamen xebleena, "ñoñoena" egiteko? Etxeetan galdetegiak eginaz lan egiten dute edo droga bereziren bat hartu ondoren sortzen zaizkie ideiak?

Perla batzuek aipagai: Cuerpos de Combate, Mariquita Perez, Mi poni, Las princesas Disney, Relojes de bolsillo, Tiffanys, Petit point, hegazkin-motor edo auto miniaturak, Errusiako arrautzak, ekialdeko kutxak, ,domina historikoak, botikako pototxoak,.. ezin amaitu. Bukatzeko, Baleikerekin batera faszikuluren bat banatzea zer irudituko litzaizueke? Igorri zuen proposamenak gure helbidera eta mailtasun handienaz aztertuko ditugu.

## DANI



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 943 861157



Alta-Mari auzategia, 17 Tel. 943 861569



Itzurun, 1 Tel. 943 143224

## Zumaiar espiatuok



Estitxu Eizagirre

Honez gero pentsatu du zuetako askok: "Zer egiten du honek gure aldizkarian! Eguzkitako beturrekoz kamuflatu Itzurun inbaditzen digu udan!" Hondartzan toaila batek hartzen duen leku bera okupatu dut "Baleike"n.

Bai, irakurle, kontrolatuta zaude. Eibartarrekin batera osatu dugun "udako inmigranteen sarea"k espioitza sistema aurreratuena zabaldu du Zumaian. Badakigu arraun taldeko kide bakoitzak ergometroan zer marka duen (e, Unanue!). Farmaziatik zaintzen dugu horko pastilla-trafikoa. Paol muturreko datuek markatzen dizkigute zuen amodioen temperatura, ekaitz sentimentalak zein feromona mareen gorabeherak... Informazio dena, gutun hau bezala, internetez pasatzen diogu elkarri, "eta" juntagailurik gabeko euskara "net" batean (begira, bestela, testu honetan zenbat dauden), CIA-k e-maila bahitu ez dezan. Orain, konekta dezadan Zumaia "Il cippo"arekin. Puntua jarriko dizut, Dorronsoro, zortziko txikia erantzuten ohituta zaudenez. Seguru al zaude, Baleikek beste bost urte iraungo dituenaz? Seguru al zaude ez dela Garzon gure irakurle bakarra? Seguru al zaude hurrengo udan herritarrek, turisten olatuak itota, lekurik izango duzuela toaila aparkatzeko? Seguru?

## Ba ote ezer ziurrik, hemen zein Almerian?

Eneko Dorronsoro



Seguru daukadan gauza bakarra Hernaniko ilehori (bis) errepikatu sasizumaiarrekin gerra berehala piztu litekeela da. Hemen zein Iraken. Zortziko txikia ez zuk uste bezain ohitua, luze zabalean mugarik gabe ere badut lan nahiko azken puntura iristen, eta gainera "Il cippo"-rekin errimatu behar badut... bapo! Edertasunez jarduteko tokia ez baita. Ez nuen inork irakurriko ote gintuenaren susmorik, baina zuk diozun hori hor bada, bejondaiola! Halere Baleikek baino urte gehiago izango ote ditu, gainontzean bost urteko garçon txikia ez baita gu ulertzeko gai izango (ba ote inor?).

Lehenaldiak suposatzen duen zirratarik, eta martxa hontan fini-kittoa era urruti izango ez dugunaren ziurtasunaz, zuen toailen parking-a, eibartarren sonbrilla loreztatuak, eta Urolaldeko eusko-sardinalata-tren urdinak albo batera utziko ditut gaurkoz, eztabaida antzuekin ez baikoaz inora. Eguzkia bera ere aspertu da luxuzko inmigranteen inbasioarekin, joan den uda ikusi besterik ez dago. Hemen zein Pragan. Eta ez naiz Galiziako "Il capoiatz" ari. Kapiroak ere baditu arrautzatxuakin...

Trinidad eak hirukoa behar duenez izan, osotasunaren eragile Loiola jaunari gertatu zaio izatea gaurkoan. San Inazioaren Loiola, Balager bezain santua akaso?

## Loiolako Cappa Loiolako Capillatik Opusi deika. Laguntza!!

Uhin Loiola



Bi bertsolarien artean harrapatuta nago, baina enea ez da zortziko txikia izango, baleike eskasa izatea baina ez txikia eta silabak zenbatzeko ez gogo eta ez astirik ez dudanez ba hori.

Trinidad e aipatu eta lehen hitza enparantza datorrit, beraz... beste zerbaitetaz mintza beharko. Hondartzei buruz, nik itzalzale naizen honek zera diot: jakina dela zumaiarrek herrikoa utzi eta Santioko parking-era joaten direna. Baina ez kampo inbasioagatik ez eta hormara iristen diren uhinengatik, Prokopio falta delako baizik. Galdera handiena baina, egiteke da oraindino: Garzon zer da Baleiken? Erreportari, kazetari, kolaboratzaile, argazkilari, harpidedun, bazkide... (?)

Hernaniko espiari galdera bat orain, nor da paol puntan egunero txixa usaina izatearen arduradun zeria? Portzieto zer da ergometro bat?

Etzeukeat ideiarik ere eta gainera Loiolako Iñaxio baino Ignatius antieroa askoz gehiago gustatzen zait. Honek bai garbituko lituzkeela bazterrak, Garzon afizionatu horren aldean.

A tres bandas idazte honek baditu bere arriskuak hirugarrenari epea gainera erortzeaz gain, ipuinari lez bukaera eman beharra, konklusioak atera, garrantzizko zerbait, transzendentea, zumaiarren bukaera, post data komplejua... estresatzen ari naiz. Beno uste dut triangelua apur bat ekilateroa atera dela, baina, osatua dago bai eta hurrena laguntza beharrez gero deitu Madame Kontxesi Uriberi.

## GAZTE, MUGITU ZAITEZ !!

BA AL ZENEKIEN Zumaian Gaztelekua ireki behar dutela? Ez? Ba, azaroaren hasieran irekita izango duzu, lehen anbulatorioa zegoen tokian, poligonoan. Zer egingo duzun gaztelekuan? Galdera ona, gazte. Ekintza piloa egin ahal izango dituzu: antzerkia, kamiseta-pintaketa, kollage-a, karaokea, ikus-entzunezko lanak, eta beste gauza asko. Eta garrantzitsuena, zeure gustuko ekintzak proposatu ahal izango dituzu. Ederra, ezta? Ba hori ez da dena!! Futbolina, darduak, ping-pong-a eta beste hamaika gauza ere zure zain daude. Eskolako lanak egiteko tokia ere izango duzu. Kalean jolastu nahi duzula? Ba aukera izango duzu.

Ordutegia ere primerakoa da. Asteazken eta ostegunetan 16:30etatik 20:00ak arte egongo da irekita. Eta ostiral eta larunbatetan 16:30etatik 21:00ak bitartean. Ederki, ezta?

Proposamenak egiteko buzoiak izango dituzu, zure ikastetxean eta kalean. Zer-bait aldatu nahi duzula edo proposamen berriak dituzula? Buzoian bota eta kitto. Hori bai, ez begiratu betiko buzoi horiei. Puntu laranja dutenetan utzi. Puntu laranja zer den? Lehen ez dizut esan, baina Gaztelekuaren ikurra puntu laranja izango da. Kalean zoazela eta puntu laranja duen zerbaite ikusten duzula? Badakizu Gaztelekuarekin lotura duen ekintzaren bat izango dela.

Beraz, jakinaren gainean zaude. 12 urtetik gora badituzu, mugi zaitez!! Badakizu Gaztelekua non dagoen!! Zure zain gaude!!



Gaztelekua anbulatorio zaharra zegoen lekuan egiten ari dira.

**TV-VIDEO-HIFI  
ELEKTROGAILUAK  
SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK  
ERRIBERA, 8 943 861694**

**EGUZKI  
PUB**

*Koktel bereziak*

Basadi Auzategia, 9-A 2-B

**BASUSTA  
ERRETEGIA**

Patxita Etxezarreta, 25 Tel: 943 862073

**AITA MARI  
KAFETEGIA**

Julio Beobide, 15 Tel. 943 861395 Zumaia

**ALBAITARITZA  
KLINIKA**

MIREN SAN SEBASTIAN BARANDIARAN  
DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN  
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL

**-ALBAITARIAK-**

astegunak: 8:30 - 10

Basadi, 7 behea  
Tel. 943143310  
Tel. mugikorra: 608- 775508

Larrialdiak  
- 24 ordu  
- zeure etxean

Karmengo Ama, 14  
E-20749 **Arroa** (Gipuzkoa)  
Tel/Fax: +34 943 14 83 06  
e-mail: bakun@euskainet.net

finés  
french  
euskara  
englantia  
español  
catalonian  
suomi basc  
català finnois  
français anglais  
catalan française  
castellano finnish  
inglés baski catalán

**Bakun**

ITZULPEN ETA ARGITALPEN  
ZERBITZUAK S.L

**ALGORRI TABERNA**

ERRIBERA KALEA 7 - ZUMAIA 943 862543

## Agur, Balendiñe Albizu



Erbestean bizitako poeta zumaiaarra irailaren 20an hil zen 88 urte zituela. Bi liburu utzi dizkigu: "Nere olerki txorta" eta "Olerkiak".

Zumaian jaio zen 1914an, baina Venezuelara eta Euskal Herriaren artean bizi izan zen. Gaztetatik izan zuen literaturarako joera, garai hartan debekatuta zeuden nobelen irakurketak piztu zion. Victor Hugo, Unamuno, Clarin eta Baroja elizako kateximak baino gustukoago zituen. Gerra zibila zela eta, Venezuelara alde egin behar izan zuen. Gernikako bonbardaketa beldurgarriak han harrapatu zuen, eta bere lehen poema bonbardaketari buruzkoa izan zen, "Gernika sutan". Idazten jarraitu zuen, baina lehen liburua 1972an argitaratu zen: "Nere olerki txorta". Bigarrena, "Olerkiak" dozena bat urte geroago kaleratu zuen, 1984an. Sentimen-

duak ziren Balendiñeren olerkietako gai nagusiak: haurtzaroko alaitasuna politikak ekarri zizkion gorabeherekin nahastuta, beldurtzen zuen itsaso beldurgarriaren ingurukoak, eta gazteen alde idatzitakoak. Hizkuntza lantzeaz baino gehiago sentimenduak azaleratzeaz arduratzen da poeta zumaiaarra.

Bizitzako arlo guztietan agertu zuen pasioa eta konpromisoa politikan ere nabarmentzen zen. Bere burua ezkerrekoztat aitortu zuen, eta Venezuelan errefuxiatutako gudari eta geroagoko militanteak goratu zituen.

Antzerkian ere aritu zen. Zumaian, batzokian politikaz jarduteko elkartzen zirenean antzerkia ere lantzen zuten Joxe Etxabe zuzendari zutela.

Omenaldi bezala, hemen duzue "Gernika sutan" poema, lehenengoa eta gustukoena zuena. EZ ADIORIK, BALENDIÑE.

### GERNIKA SUTAN

Ze ikusten dabe nere begiek  
Esan zanduan, Sabin, euskalerrria  
motzen menpetan ikustean.

Ara, or, Sabin, gure Gernika!  
orain su ta garraren artean.  
Zer esango zenduke orain, gure Gernika!  
suez kiskalduta ikustea?

Etsia maltzurak nai izan du  
Gernika mapatik ezeztatu;  
au egiteko egun ederren...  
merkatu eguna aukeratu!...

Erri ta inguruko millaka euskaldun  
bonbapean kiskaldurik gelditu!  
Ikaragarria da! Ezin gizonak siñistu

egin leikenik onenbeste kalte;  
inpernueatik sortuak dira,  
Luzbel ta etsaiak, denak dute parte.  
T'alaxe eliz-gizonak Franco  
gizon on ta santutzat daukate!

Munduko erriak, arren,  
begiak ireki itzazute!

**AMETZA**  
taberna

Santiago auzoa, 4  
tel: 943 143370



**Azkue Autoak**

Tel: 943 861433  
Estazioko kalea, 19 Faxa: 943 861067

**Antonio Etxabe**



*Gizonezkoen  
erropak*

Zumbillo, 4 Tel. 943 861407

## XIX. mendeko ontzi zaharra



**Valery, Ivan, Savva, Vera eta Marina errusiarrek XIX. mendeko Avos bergantzin zaharrean itsaso zabalean barrena.**

Julio Vernerren edo Robert Louis Stevensonren liburuetatik ateratako istorio harri-garria dirudi. Hasiera 1985ean dago, Sibi-riako Baikál laku hotzaren ur azpian. Hantxe aurkitu zuten bergantina. Valeryk

Gladkov kapitainak dioenez, Europa zeharkatu zuen lehen errusiar bergantina izan zen, horregatik ageri da Guinness liburuan. Orain Valery berarena da ontzia. Ur azpitik atera eta konpondu ondoren, San Petersburgora eramán zuen ibaietan eta ubidetan barrena. Orduki itsasoak eta ozeanoak zeharka-



tu ditu boskote errusiarrek. Baita hamaika abentura harrigarri bizi ere. Eta honela iri-tsi dira Zumaiara. Beraien asmoa da, ontzia hemen nonbait laga, eta kotxez euren herrialdera itzultzea. Errusian sei hilabetez lan egin, eta berriro bergantina dagoen portura joango dira sei hilabetez auskalo zein itsasotan zehar nabigatzeko. Beti horrela egin izan dute: sei hilabete lehorrean eta beste sei itsasoan. Oraingoz amaierarik ez duen istorio honen azken orrialdea Getxon idatzi dute. Bertan utzi dute bergantina, jendearen borondatea eta beraien lana tarteko bildu duten diruarekin konponketak egin ahal izateko.

Bizimodu bitxia, beraz, errusiar haue-na. Ia dena izan arren, ase ezina den gizartearen kontrakoa: baliabide gutxire-kin ederki eta gustura bizi. Erromantiko hutsak errusiar hauek, desagertzear dago-en bizimoduaren adierazgarriak. Bejon-deiela!! Itsasoak errespeta ditzala!!

## XXI. mendeko ontzizarra

**Balentziaga Ontziolak orain arte Gipuzkoan eraiki den ontzirik handie-na egin du.**

"Grampian Surveyor" izenarekin bataiatu duten ontziak 75 metro luze, 16 metro zabal eta 7 metroko altuera ditu. Eskozia-ko enpresa batek erosi du 23 milioi euro ordainduta, eta Ipar aldeko itsasoan ariko da lanean petrolioak daramaten ur azpiko odiak zaindu eta konpontzen.

Orain antzeko beste ontzi bat eraikiko dute Zumaian bertan. Albiste onak, beraz, beti ere denen mesedetan baldin bada...





ZUMAIARRAK KONGON



"Lapurtu diegun guztiaren

%1 bueltatuz gero

nahikoa litzateke"



***Gosea, immigrazioa, miseria eta horrelakoak aipatuta, bestek beste, Afrika datorkigu gogora. Kongon izan dira uda honetan Xanti Osa, Joseba Osa eta Lutxi Arsuaga. Bertatik bertara ezagutu dute lurralde hartako egoera gordina.***

**M**ahai baten bueltan eseri, eta han bizi izandakoa kontatu digute, baita egoera lotsagarri honen zergatiak aztertu ere.

**Nola sortu zitzaizuen Kongora joateko asmoa?**

XANTI: Orain bi urte Justo hemen izan zenean, hara joateko esaten zidan. Harrez gero ere idazten zuen bakoitzean joateko eskatzen zidan. Nik esaten nion: "bakarrik nola joango nauk ba?"... eta ez nintzen animatzen. Baina egun batean etxean komentatu nuen, eta Josebak esan zidan bera ere joango zela. Orduan animatu nintzen. Beranduxeago Lutxi ere animatu

zen, eta horrela izan zen dena. Lehenbiziko txispak hortik irten zuen.

**Zertara joan zineten?**

XANTI: Gehienbat bixita egitera, eta bide batez, Justok eskatu zizkigun uren bonbak eramatera. Hangoak erre egiten zirela eta, eskaera hori egin zigun. Hamabi bonba egin genituen, eta horietako hiru hartu eta hara joan ginen.

JOSEBA: Bonbengatik baino gehiago, bixita egitera joan ginen, eta hango giroa ezagutzera.

**Zenbat egun egin dituzue?**

LUTXI: Hemezortzi bat egun.

Uren bonbekin bidean arazoak izan zenituzten...

XANTI: batez ere irteeran, han Lubumbashin, Kongoko bigarren hiririk handienean. Aduanakoez ez zizkiguten eman nahi, eta beti eskua luzatzen ziguten. Josebak dirua eman eta aurrera. Hori bai, ez dakit zenbat ematen zien...

JOSEBA: hasieran 150 euro, baina gero gehiago eta gehiago eskatzen zuten.

**Bestalde, Zumaian bildutako dirua ere eman zenieten.**

JOSEBA: Bai, hala da. Hemen dirua bildu genuen, eta momentuan behar zuen kopurua eskura eman genion.

**Justo aipatu dugu, baina non dago, Kongoko zein lekutan?**

JOSEBA: Kasungami izeneko herri txiki batean, Kongoko hegoaldean, Zambiatik oso hurbil.

**Zenbat jende bizi da Kasungami-n?**

JOSEBA: Galdetu genien baina beraiek ere ez dakite.

XANTI: Ez al zuen esan 2.500 edo?

LUTXI: 5.000 ere aipatu zuten.

JOSEBA: Baita 8.000 ere. Baina gure ustez, herrixka horretan ezinezkoa da 2.000-3.000 pertsona baino gehiago bizitzea. Zumaia baino askoz txikiagoa da.

**Hara iritsita zer aurkitu zenuten?**

XANTI: nik uste nuen etxeek lurrezko paretak izango zituztela, baina hemengo adreiluaren antzekoekin egindako etxeak dituzte, lur errearekin egindakoak. Teilatuetan, berriz, ahal dutenek txapa jarrita daukate, ondulina modukoa. Ezin dutenek, berriz, lastoa erabiltzen dute. Alde horretatik nik uste baino hobeto daude.

**Hala ere, mixeri gorria non nahi, ezta?**

XANTI: Bai, bai hori bai. Hala ere, Bruselako aireportuan, Belgikan, izugarrizko ezustekoa hartu nuen. Beltzak urre piloarekin, kateekin eta. Orduan pentsatu nuen: "gu nora goaz? Justona bixita egi-

tea, hauek hainbeste urre edukita...?" Haiek aberatsak ziren.

Baina gero, hara iritsita errealitate gordina aurrean genuen.

**Nolako inpresioa egiten du hango egoera norbere begiekin ikustea?**

JOSEBA: hasieran pelikula bat ikus-

Hasieran pelikula  
bat ikusten ari  
zarela pentsatzen  
duzu, hain da  
mundu desberdina:  
jendea  
hanka-hutsik,  
hainbeste ume,  
argal-argalak...



Amaiako plaza z/g Tel. 943 860959

*Gure txokoa*

• taberna •

*kaxuelita eta pintxo ezberdinak*

Upela plaza, 4 tel: 943 860970

English School  
**Harvest**

**Ingelesko klaseak adin guztietan**  
San Jose, 11 bis Tel. 943 143334



ten ari zarela pentsatzen duzu, hain da mundu desberdina: jendea hanka-hutsik, hainbeste ume, argal-argalak... ia ia jaten ez duen jendea da, baina hala ere, beti pozik daude, dantzarako eta kanturako prest. Festetarako gaitasun eta erraztasun handia dute.

**Bertako jendea aipatu duzue, baina nolakoak dira?**

JOSEBA: Herri txikietan, behintzat, oso alaiak, irekiak, umilak... beti harremanetarako prest dagoen jendea da. Adibidez, etxeak zabalik daukate sartu nahi duenarentzat. Oso inpresio ona jaso genuen. Naturaltasun handia dute, eta

egosita. Han antzeko zerbaite jaten dute. Egunean atzaparkada bat jaten badute, gustura.

**Beraien arteko harremanak nolakoak dira? Nolako elkarbizitza dute?**

JOSEBA: Gure ikuspegitik gauza batzuetan oso konserbadoreak dira. Bikoteetan, esaterako, matxismo ugari dago. Emakumeek hemen baino askatasun gutxiago dute, lotuago daude. Adibidez, galtzak janzen dituzten emakumeak gaizki ikusita daude. Ia emagalduek balira bezala hartzen dituzte. Bai, gauza on asko dituzte, baina ezin dugu hura idealizatu. Hau da, ezin dugu esan denak zoriontsu bizi direnik. Han, toki guztietan bezala, badaude ezinikusiak eta harreman arazoak. Gainera, jatorri bantua duten herrietan, eta Kongon ugari dira, bada halako pentsamolde bat: zerbaite txarra gertatzen bada edo pertsonaren bat hiltzen bada, zoritxarren bat izenez gero, norbaiten errua dela pentsatzen dute, eta oso gaiztoak izan daitezke pertsona horrekin. Adibidez, behin arotz bat hil zen, eta erruduna Justo zela pentsatu zuten, bera ere arotza delako. Hori oso sustraituta daukate, eta horrek etsaitasunak, ezinikusiak sortzen ditu. Zaildu egiten ditu harremanak, gaiztotu. Baina naturaltasun osoz adierazten dituzte ezinikusi horiek. Ez dute ezer ezkututzen. Alde horretatik oso garbiak dira.

bizitzeko gogo izugarria; hemen galduta dagoen nolabaiteko birjintasuna, xalotasuna gordetzen dute.

XANTI: Deigarria da baita ere, orduetako begiratu gabe bizi direla. Guk hemen faltan daukaguna haiek soberan daukate. Denbora nahi beste dute. Bestalde, guri sobratzen zaiguna, jatekoa, haiei falta zaie. Miserian bizi dira.

JOSEBA: Hemen jendeak dirua gastatzen du argaltzeko, ez gizentzeko... Han, berriz, bestelako arazoak dituzte.

XANTI: Gerra garaian hemen, moakila deitzen geniona jaten genuen, artua

Hemen galduta dagoen nolabaiteko birjintasuna, xalotasuna gordetzen dute

**Zuek han zeundetela, aipatu duzunaren antzeko kasuren bat gertatu al zen?**

JOSEBA: Emakume bat hil zen gu han ginela, eta hileta ere ikusi genuen, baina guk ez dakigu errua norbaiti leporatzen hasi ziren ala ez.

LUTXI: Hildakoa adineko emakumea zen, eta urte asko zeraman gaixorik, minbiziak jota. Beraz, esperotako heriotza izan zen. Agian horregatik ez ziren hasiko errudun bila.

ODONTOLOGIA - PROTESIS DENTAL

**CLINICA DENTAL ZUMAIK HORTZ KLINIKA**

Plazaleta de los Fueros - Bajo  
Tel. (943) 86 14 74  
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

Gerente  
Rafael Iraundegi Elgoiber

**KABI**  
TABERNA - ZUMAIK  
Tel. 943 143379

TXOMIN AGRRE, z/g  
TEL: 943 865369

**KAIA**  
Kafetegia

JOSEBA: Bada beste kasu bat, zentinela batena. Guk alde egin eta berehala gertatu zen. Gerran egon direnez, herri bakoitzean pare bat zaindari edo zentinela dituzte. Ba, orain dela gutxi norbait hil eta zaindari horri bota zioten errua. Jendea bere etxera joan eta dena txikitu ondoren, zaindariak alde egin behar izan zuen, eta poliziarengan babesa bilatu.

**Aspaldian immigrazioaren auzia pil-pilean dago. Soma-tu al diezue bertakoei handik alde egiteko gogoia?**

JOSEBA: Bai, nabarmena da askorengan, bai. Gainera, idealizatuta daukate hemengo bizimodua. Hau ezagutzen ez dutenek pentsatzen dute hemen denak zorionsu bizi garela "Gure semea edo alaba bidaliko genuke ba hara ikasketak egitera", horrelakoak esaten dizkizute. Badakite, han baino askoz aberatsagoak gara. Baina asko idealizatzen dute gure gizartea.

**Gaur egun gobernuz kanpoko erakunde asko dago, baina benetan kezkatzen al gaitu han bizi duten egoera gogorak? Benetan arduratzen al gaitu?**

JOSEBA: Nik uste dut ezetz. Nire ustez, hango egoerak ez gaitu benetan kezkatzen. Ez dut esango dena zuri-keria, faltsukeria denik, baina lapurtu diegun guztiaren zati txiki-txiki bat bueltatu besterik ez dugu egiten, lapurtu diegun guztiaren % 1 bueltatuz gero nahikoa litzateke. Horretara ere ez gara iristen. Guregandik hasita, gu ez gara izugarri ematera joan; esan daiteke gu turismoa egitera joan garela. Eta gu bezala jende asko. Nire ustez, gaur egungo elkartasuna, oro har, oso azalekoa da, gure gizartea bezalaxe.

LUTXI: Hala ere, borondate guztiarekin ari den jendea badago.

JOSEBA: Bai, bai, dudarik gabe. Baina ez dut uste benetan gauzak errotik aldatzeko prest gaudenik. Horrek guretzako kostu ikaragarria ekarriko luke. Gu bapo bizi gara; janariak, arropak, jostailuak, CD-ak, argazki-makinak, etab. merke-merke erosten ditugu. Eta hori dena da hirugarren mundua deitzen den hori esplotatzen ari garelako. Handik gauzak oso merke ekartzen ditugu. Hori benetan aldatzeko aukerarik izango bage-nu, nik uste dut gure gizartea ez legokeela prest prezio hori ordaintzeko. Gauzak justiziaz eginez gero, gauzen benetako prezioa ordaindu beharko



genuke, eta ez orain bezala.

**Nola lagun diezaikegu?**

JOSEBA: Egia esan, egin daitekeena gutxi da. Hori garbi ikusten da mugimendu iraultzaileen jarrera aldatketan. Lehen esaten zuten gurea bezalako laguntzak karitate hutsa eta partxeak besterik ez zirela, irtenbide bakarra nazioarteko iraultza zela, "sistema aldatzea" baina gaur egun beraiek ere ahal dutena egiten dute, besteok bezalaxe: han eta hemen proiektu batzuk bultzatu, horren bidez jendea sentsibilizatu, gizarteari adierazi benetako egoera zein den... baina benetan egin daitekeena oso gutxi da, gauza txikiak. Alde horretatik oso ezkorra naiz.

XANTI: Han dena egiteko dago eta. Ezer ere ez dago. Ezer ez. Pentsa, Lubumbashi hiriburuan ere apenas dago ezer. Ikusi genuen handiena Salesianoen lantokia



- \* Eguneroko bazkaria
- \* Pintxo eta bokatak
- \* Koadrilentzako menu bereziak
- \* Kazuelitak eta plater konbinatuak

Erribera kalea, 16  
Tel. 943 862517



- Depilaketa (heroa, epela)
- Minik egiten ez duen depilaketa elektrikoa
- Aurpegia edertzeko sendabideak
- Gorputza edertzeko sendabideak
- Lurrindegia
- Solarium-a



Erribera kalea Tel. 943 861523

eta eskola izan ziren. Justok nahi duena horixe bera da, baina helburu apalagoekin: kaleetan dauden umeei lanean erakutsi eskolen bitartez, eta gero lantoki txikiak egin ondoren, bertara bidali.

**Orduan, guk ezin badugu egoera gaizto hori aldatu, agintarien zain egon behar...**

JOSEBA: Ez dut uste konponbidea agintariei bakarrik dagokienik. Guk ere gauzak aldatu ditzakegu, baina prest egongo al ginateke, behar izanez gero, soldataren herena edo erdia irabazi, eta gainontzeko dirua beharra dutenei emateko? Ezetz esango nuke. Eta guk borondaterik ez badugu, agintariak are gutxiago. Hor daude G-7a, munduko estatu aberatsenen taldea, hor daude multinazionalak; horiek helburu bakarra dute: gero eta aberatsago izatea. Ez zaie komeni herrialde pobreak garatzea, eta beraien arteko gerretan ari badira, oraindik eta hobeto. Hutu eta tutsien arteko gerra adibide garbia da. Gure munduko estatu aberatek bertakoen arteko borrokak eragiten dituzte, beraien lurralde aberatsen jabe izateko. Gure erantzukizuna ikaragarria da, eta dudarik ez, agintariena are eta handiagoa. Baina ez zaie interesatzen egoera aldatzea; eta guri ere, aberastasun horri esker bapo bizi garen europarroi ere ez zaigu gehiegi axola haien egoera (immigranteen oldeak geldiezinak izan arte, agian).

**Aipatu duzue lurralde haiek oso aberatsak direla. Zer gertatzen da bertako jendea horretaz ez baliatzeke?**

JOSEBA: Batetik, esploatazio izugarria dago. Bertako aberastasunak Europa, Japonia eta batez ere

Estatu Batuen esku daude, multinazionalak dira jabeak. Bestetik, kongotarrek beraiek aitortzen zuten bezala, ez daukate erraztasunik enpresak kudeatzeko, ez daude ohituta horrelako ustiapen proiektuak aurrera eramatean. Ez dira herri planifikatzaileak; bizi-iraupenezko ekonomietara ohituta dauden herriak dira. Ez daukate enpresa handiak antolatzeko gaitasunik. Ondorioz, europarren beharra dute gauzak antolatzeko. Hori beraiek aitortzen ziguten. Naturak emandakoarekin bizi izan dira, horrela iraun izan dute milaka urtez, gu beraien bizitzan sartu ginen arte. Eta orain ez dute bizi-modu onik, ez beraiena (lehengoa) eta ez gurea ere (mendebaldeko bizi-modu modernoa). Eta horretaz baliatzen dira mendebaldeko herrialdeak, haien gartzeko gaitasun ezaz, alegia.

LUTXI: Ahalmenik, kemenik ere ez dute horri aurre egiteko. Ez dira gai, adibidez, enpresa publiko bat sortzeko.

XANTI: Ez dute ikasi, ez diete erakutsi, ez diete utzi. Larria hori da. Goikoek ez dute behekoek ikastea nahi izan.

LUTXI: Baina beraiek ere ez dute ahalmenik, ez dute gaitasunik.

XANTI: Nondik sortuko dute ikasi ez badute? Beraien esku ez dute ezer eduki, dena besteentzat izan da. Menderatuta eduki dituzte.

LUTXI: Baina, adibidez, ejertzittoa mantentzen dute. Zergatik ez dute diru hori beste zerbaite-tan gastatzen?

**Diru faltagatik ez da orduan?**

JOSEBA: Beno, ez pentsa, gobernuak berak ere



**"Muagi"**

- ERREHABILITAZIOA
- KIROL MEDIKUNTZA
- FISIOTERAPIA

Aita Mari 3.blokea  
Tel. 943 86 16 91

RPS: 066/02



ez dauka diru gehiegirik. Ustelkeria, korrupzio handia dago. Soldaduek eta funtzionarioek lau urte daramate sosik kobratu gabe...

LUTXI: Dena eskupean ematen da. Dena da ustelkeria. Baina hori mozteko indarrik ere ez daukate.

JOSEBA: Gainera, kultura harraparia da nagusi. Kongo lehen Belgikaren kolonia izan zen.

Ba, belgikarrek enpresaren bat bertan behera uzten badute, gutxi batzuen artean banatzen dute dena, denen artean banatu beharrean. Dena hartu eta hanka. Azkar aberasteko kulturak indar handia du.

LUTXI: Egunekoari bakarrik begiratzen diote. Gaurkoa egin, eta bihar auskaloi!!

### Bukatzeko, zein dira zuen hurrengo asmoak?

XANTI: Kontenedore bat bidali nahi diegu, ahalik eta gehien beteta. Batez ere makinariarekin. Prestatzen ari gara eta ea noraino iristen garen. Atxurak ere behar dituzte, baita beste gauza asko ere: josteko makinak, jertseak egiteko makinak. Saiatuko gara ahal den guztia biltzen. Eta laster bildu nahiko genuke. Ahal balitz, azaroan bertan. Eta lan horretan berriro ere Zumaiako herriak ondo erantzutea nahiko genuke, Justok eta hango jendeak horrenbeste merezi du-eta!■

Herriak  
ondo erantzutea nahiko  
genuke,  
merezi dute  
eta

## JUSTO ETA KASUNGAMIKOEN ESKAERAK

- 4 Aroztegiko makinak eta erremintak (mota guztietako makinak, eskuko zerrak, mailuak, kanala egiteko kutxillak, Fresak –espigatzekoak eta normalak–, moldurak eta kontramoldurak, patabanda ateratzeko fresak...)
  - 4 Ur-bonbak
  - 4 Material elektrikoa (denetarik: kaja elektrikoak, kableak, entxufeak...)
  - 4 Iturgintzako materiala (iturriak, tuboak...)
  - 4 Eskuko esmerila
  - 4 Motozikleta bat (mendiko gurpilekin)
  - 4 Bizikletak (gurpil lodikoak)
  - 4 Burnizko txapa beltza (2 m x 1m x 2mm eta 3 mm-koak)
  - 4 Mahaiko taladroaren kabezalak
  - 4 Trikotadorak
  - 4 Teilatuetoako txapa ondulatua
  - 4 Mekano eta antzeko jolasak umeentzat
  - 4 Futbolerao materiala (kamisetak, baloiak, puztutzeko bonbak...)
- Horiek dira propio eskatutakoak. Bestelako materialak ere behar dira, baina alde zurretik hitz egin behar da bidaltzea komeni den ala ez.
- MILA ESKER GUZTIOI!

Diru-laguntza emateko kontu korronteak:  
KUTXA: 21010174110123823775  
EUSKADIKO KUTXA: 30350037490371048553  
Telefonoak: Xanti Osa: 943 86 15 81  
Joseba Ossa: 943 14 80 65



Goizeko 5:30etatik  
asteleheneetik larunbatara  
PINTXO eta OGITARTEKOAK  
TEL: 943 86 24 90



# Anade eta Zumaiakok

2002 ospakizunen urtea da.  
Urrea eta zilarra. Anadek  
berrogeita hamar bete ditu.  
Zumaiakok hogeita bost. Bien  
historia ezagutu nahi?

# urteak betetzen dituzte



# URREZKO ELKARTEA

**L**EHENGO URTEAN Pulpo elkarteak bere urteurrena ospatu zuen eta aurten Anaderi, ehiza eta arrantza elkarteari, tokatzen zaio. Zumaian arrantzaleak eta ehiztariak uztartzen dituen txoko bakarra da Anade.

1952. urteko urriaren 25ean Gobernu Zibilak baimena eman ondoren elkar-  
tea legalki zabaldu zuten. Hala eta guz-  
tiz ere, herriko ehiztariak eta arrantzale-  
ak elkar-  
tea alokairuan hartu baino lehen Etxabe IV tabernan biltzen ziren. 1981. urte arte egon ziren alokairuan eta gero 2 milioi pezetan erosi zuten.

Agustin Etxabek eta Jesus Osak (egun lehendakaria) elkar-  
tea zabaltzeko hasie-  
ran zailtasunak izan zituztela esan ziguten; izan ere, Gobernu Zibilari eskatu

behar zitzaion baimena. Hauek, infor-  
meak eskatzen zituzten herrian baimena eman baino lehenago, oztopo ugari jartzen baitzituzten nazionalismo kutsua zuten elkartei, baino taldean frankistak bazirenez ez zituzten arazo handirik izan.

Anadeko lehenen-  
go lehendakaria Luis Fernandez Del Pino Almech izan zen 1955. urteko apirilaren 12rarte, hiru urte bakarrik egon zen zen-bait arazo izan baitzituzten; ondoren, botazioak egin baino lehen Saturnino Echaniz Yeregui (1955/07/09) izan zen ordezkoa ; botazioak egin ondoren

Simon Olaizola Alcorta (1970/05/20) izendatu zuten lehendakari; ondoren, Iñaki Sorazu (1983/09/15); gero, Sabin Yeregui Saralegui (1996/03/24). Gaur egun Jesús Osa Fernández dugu txoko honetako lehendakaria eta Jose Antonio Granados lehendakariorde.

Zumaian  
arrantzaleak eta  
ehiztariak  
uztartzen dituen  
txoko bakarra da  
Anade

Lehen esan dugun bezala 37 bazkidee-

kin zabaldu zen txokoa, baino berehala bazkide kopurua handitzen joan zen, egun 161 bazkide inguru daude. Ez dira betebehar ugari bertako bazkide izateko; 18 urte baino gehiago izatea, gizonetzkoa eta ehiza edo arrantzaren mun-





## Anadeko lehenengo lehendakaria Luis Fernandez Del Pino Almech izan zen.

duarekin erlazioa edukitzea. Emakume-  
engatik galdetzean oraingoz bazkide  
ezin dutela izan esan ziguten; izan ere,  
bertako araudiak ez ditu emakumeak  
onartzen, hala ere inolako eragozpenik  
ez dutela esan ziguten, etorkizuneko  
aukera bat izan zitekeela.

1961. urtean bandera egin zuten, ber-  
tako ikurra lehiaketa baten bidez auke-  
ratu zen, irabazleari 500 pezetako saria  
eman zitzaion. Lehiaketaren irabazlea  
sortzaileetako bat izan zen; hain zuzen,  
Pablo Tolosa Epelde. Bertan San Pedro-  
ren giltzak eta tiara, eskopeta, hegaztia  
(anade) eta arraina bere amuarekin  
azaltzen dira.

### Ekintzak

Zumaiako eremu  
guztian ehizako bai-  
menak bideratzeaz  
arduratzen da. Gipuz-  
koako ehizako federa-  
kuntzak antolatutako  
ekintza guztietan  
parte hartzen du eta  
herri bertan txakurrekin ehizatzeri joa-  
teko lehiaketa prestatzeaz arduratzen  
da.

Urtero, arrantzarekin zerikusia duten  
lehiaketak antolatzen dituzte, batzuk oso  
ezagunak; udara aldean umeentzat egi-  
ten den "Pez Chico" (aurten XXVIII  
urtea bete du), bertan 7-14 urte bitarteko  
haurrek parte har dezakete; udaran baita  
ere, kabrak eta dontzeilen arrantza (aur-  
ten XXVII. lehiaketa), txalupetan arrain  
gehien harrapatzea da lehiaketa honen  
helburua; txitxarroa, berdela eta antzeko

arrainak ezin dira hartu. Bi lehiaketa  
hauek oso ezagunak dira.

Gipuzkoa mailako arrantza lehiaketa  
ere antolatzen dute, arrakasta handia  
izaten du, eta azkenengoan 360 arran-  
tzalek hartu dute parte.

### Urteurrenaren ospakizunak

Urtean zehar ekintzak antolatu dituz-  
te: lehiaketak, elkarteen arteko mus txal-  
peltak, "tiro al plato"... Urriaren 25ean

1961. urtean  
bandera egin  
zuten, bertako  
eskudoa lehiaketa  
baten bidez  
aukeratu zen

idatzi duten liburu-  
aren aurkezpena egin-  
go dute Alondegi  
Zaharrean, eta ber-  
tan elkarteko webgu-  
nea aurkeztuko dute.  
Bestalde, antolatu  
duten marrazki  
lehiaketako eta  
Argazki Rallyeko ira-  
bazleei sariak bana-

tuko dizkiete. Ospakizunekin amaitze-  
ko, urriaren 27an, igandean,  
hamaiketako eta bazkaria izango dute  
bazkideek.

Ikusten dugun bezala, oso elkar-  
te modernoa dugu Anade, bere webgunea  
ere badu eta. Ideia hau Jose Antonio Gra-  
nados lehendakariordeari okurritu zi-  
tzaion; ordenagailu zalea denez eta baz-  
kideak ados zeudenez proiektua aurrera  
eramatea erabaki zuten.

Txoko gastronomiko honi buruz  
gehiago jakin nahi izanez gero, badaki-

zute, 25ean liburuaren aurkezpena  
joan eta liburua erosi, merezi duelako-  
an gaude-eta.

Baleike aldizkariaren partez ZORIO-  
NAK Anade Elkarteari eta bititza luzea  
opa diogu, eta bide batez eskerrak eman  
nahi diegu beraiekin elkartu ginenean  
eman ziguten askariarengatik. ■

### Anade Elkarteko lehenengo bazkideak eta sortzaileak

(guztiak arrantzaleak edo ehiztariak) 37 izan ziren: Pablo Zimmerman, Saturnino Etxaniz, Jose Claudio Iraundegui, Manuel Azcarate, Justo Urbietta, Pablo Tolosa, Jose Francisco Osa, Gracian Galárraga, Jose Gajate, Jose Garcia, Jesús Olaizola, Luis Fernández del Pino, Santiago Arano, Nicolas Olaizola, Francisco Aizpurua, Manuel Lasquibar, Miguel Sasiain, Julian Sasiain, Simon Olaizola, Ascensio Apestegui, Jose Manuel Iribar, Juan Arteche, Pedro M<sup>a</sup> Goicoechea, Jesús Yeregui, Javier Ruiz, Joaquin Alberdi, Domingo Aizpurua, Jose Cearreta, Alonso Trufero, Estanislao Echave, Julian Eguiguren, Matias Carballo, Enrique Royo, Jose Antonio Olaizola, Juan Jose Tolosa eta Agustin Eguiguren. Gaur egun, lau bakarrik daude bizirik: Pablo Tolosa Epelde (bazkide oraindik), Jose Francisco Osa Iribar (Argentinara joana), Jose Garcia Aracues (egun ez da bazkide) eta Ceferino Sasiain Urbietta.

ile-apaindegia



**Solarium**

ETXEZARRETA, 9  
TEL: 943 86 10 21



**MENDI - ONDO C.B.**  
ELEKTRIZITATEA

Urola Plaza, 21  
Tel. 943860074 - 943861569



**METRO**  
taberna

ogitartekoak  
pintxoak

Upela plaza, 7  
tel: 943 862620

# SAKRIFIZIOZ ETA ILUSIOZ BETETAKO 25 URTE

**Zumaiako Futbol Taldeak zilarrezko ezteiak betetzen ditu aurten. Denbora tarte horretan jende asko, lan ugari, betetako eta ez betetako ametsak...denetik izan da. Baina guztiaren gaineretik langintza horretan murgildu direnen ilusia eta gogoia.**

**H**ALA ERE, Zumaian futbola ez zen 1977an hasi. Askoz lehenago eman zituzten lehenengo pausoak, edo aurreneko ostikadak. Eta haiengatik izan ez balitz...

## Hasiera haiek

Oso atzera egin behar da gure herrian futbolaren hastapenak noizkoak diren jakiteko. 1923koak dira aurreneko berriak. Urte hartan, sanpedroak ospatzeko futbol partida antolatu zuten. Aurrez aurre Reala eta herriko Amaya F.C. Partida jokatzeko, ordea, zelaia behar, eta udalak lur gogorreko bat prestatu zuen gaur Julio Beobide pasealekua den inguruetan. Izena eta guzti ipini zioten: Arrangoleta.

Urte batzuk geroago, 1942an, luistarren babesean indartu zen futbola gure herrian. Zumaya F.C izan zen Urola bailarako beste talde batzuekin batera, Urola Kopa txapelketa antolatu zuena. Gipuzkoan arrakasta izan zuen txapelketa hark. Txapelketa hura dela eta, bada bitxikeria bat. Zumaian futbol zelairik ez zegoenez,

etxeko partidak Azkoitiko Altxibar zelaian jokatzeko zitezuten.

Pulpo Kirol Elkartek ere zeresana izan zuen futbolaren munduan. 1951n hondartzako futbola bultzatu eta indartu zuen. Gainera, herriko jokalaririk onenekin, inguruko herrietako txapelketetan parte hartzen zuten.

Hasiera hauetan aritu zirenak Joxe Uribe eta Iñaki Esteban izan ziren, besteak beste.

## 1977

Urte honetan Zumaiako Herri Batzokiaren baitan, herriko gazte talde batek oso indartsu heldu zion futbolari. Itxaspe koadrila zen talde hori: Pello Garate "Altxola", "Juanito" Txomin Zubia, Rufo Bidasoro, eta beste asko. Areto-futbolarekin eta hondartzakoarekin hasi ziren. Baina horrekin konforme ez, eta federa-

tutako taldea osatzea eta ateratzea lortu zuten. Gazteen 2garren mailan jokatu zuen talde hark Zumaiako Herri Batzokia izenarekin. Juan Ramon Llavoren entrenatzailea. Jokalarietako batzuk hauek ziren: Iñaki Zendoia "Shilton",

Felix Nolaskoain, Arrona "Napar" eta Joseba Esnal.

Futbol zelai berria egin zuten Egurko inguruan, harri txin-tzarrezkoa. Inaugurazio egunean, pentsa, autobusa eta dena antolatu zuten herritik

Oso atzera egin behar da gure herrian futbolaren hastapenak noizkoak diren jakiteko

futbol zelairaino joateko. Egun garrantzitsua zenez, bi partida antolatu zituzten: alebinetan, Zumaiako Herri Batzokiaren aurka jokatu zuen; eta bestea Realeko eta Athletic-eko helduek jokatu zuten. Hori dena 77an izan zen. Urte garrantzitsua, beraz, herriko futbolaren historian.



Egurko aldekoa izan zen lehenengo futbol zelaia.



88-89 denboraldian 3. mailara igo zen taldea.

Urtebete geroago, 77-78 denboraldian Z.H.Bk bi talde zituen: oraintxe aipatutako gazteena, eta haurrena. Azken horren entrenatzailea Fran Aizpurua izan zen. Denboraldi hura ere Egurkon egin zuten. Bi urtez izan ziren bertan jokatzeko.

### 80ko hamarkada: futbol zelai berria, nesken taldea eta 3. maila

Hamarkada honi gogor ekin zioten. 80-81 denboraldian senior mailako lehen taldea atera zuen Zumaiaok Regionaletako lehen mailan aritu ziren Anjel Krespo entrenatzaile zutela.

Bi denboraldi pasata, 82-83an, Preferentera igo ziren, orduan ere Krespo buru zutela. Urte garrantzitsua 1983 hori. Belarrezko zelaia egin zen eta izugarria izan zen herri mailan izan zuen eragina. Pentsa, taldea preferenten eta zelai berria. Ia -ia herri guztia txoratzen.

Hurrengo denboraldiak ere badu aipatzeko datua. Gazte mailako taldea Oho-errezko mailara igo zen Llaborirekin.

Ondorengo urtea oso berezia izan zen. Talde nagusiak Preferenten jarraitzen zuen, baina berrikuntza handiak izan ziren, horietako pare bat bitxi samarrak, gainera. Entrenatzailea aldatu, eta Juan Karlos Arostegi ekarri zuten. Horra arte ondo. Ondorengoa izan zen bitxia: jokalaria japoniar bat etorri zen Zumaiaok jokatzera, Yuhi Horimizo izenekoa. Sekulako ikusmina piztu zuen, eta ez herrian bakarrik. Beste bitxikeria historikoa izan

zen: estatuko futbolearen lehen aldiz, masajista emakumezkoa izatea. Karmele Etxabe izan zen emakume hura. Denboraldi oparoa, beraz, 85-86koa.

Hamarkada hartako albiste garrantzitsuenetakoa, eta era berean pozgarrienetakoa nesken taldearen sorrera izan zen. 87-88 denboraldian gertatu zen hori. Fernando Martinez entrenatzaile zutela, talde horretan ziren, batzuk aipatzearen, Ainhoa Romaneli, Aizpea Larrañaga, Eva Romatet, Uxua Albizu, Margari eta Txaro. Partida bakarra irabazi arren, oso gustura aritu ziren, eta bide batez, gerora futbolearen ariko ziren neskei bidea ireki zieten.

Hamarkada hartako azken bi denbo-

Estatuko futbolearen lehen aldiz, masajista emakumezkoa izatea. Karmele Etxabe izan zen emakume hori

raldiak oso garrantzitsuak izan ziren Zumaiaokoren historian. Klubak orain artean lortutako mailarik altuena lortu zuen. 88-89 denboraldian 3. mailara igo zen mutilen lehen taldea txapelketa bikaina jokatu

ondoren. Juanjo Arrizabalaga zen entrenatzailea. Jokalarietako batzuk, hauek: Felix Nolaskoain, Antonio Vazquez, Pello Zumeta, Imanol Zuazobide eta Iñaki Ostolaza. Izugarria izan zen igoera lortzea, eta ospakizunak ere ez ziren apartekoak izan ziren.

Hurrengo denboraldian, beraz, 3. mailan aritu ziren. Fitxaketa batzuk egin zituzten taldea indartzeko asmoz, baina azkenean, ez zuten mailari eustea lortu.



87-88 denboraldian atera zuten lehen aldiz nesken taldea.



### 90eko hamarkada: harrobiaren urteak

Aurreko hamarkadaren bukaera eta orain mintzagai dugunaren hasiera bitartean Zumaia Herri Batzokia izan zena Zumaia Futbol Taldea izatera igaro zen. Hala ere, horrek ez zuen ezer aldatu. Izen aldaketa besterik ez zen izan.

Hamarkada hura harrobiaren hamarkada izan zen. 90-91 denboraldian gazteen taldea 2. mailatik 1. mailara igo zen. Hurrengo denboraldian kadeteak Oho-

rezko mailara igo ziren Oskar Kastoren eskutik.

91-92 denboraldian berriro ere nesken taldea osatu zen, hiru bat urtez talderik gabe egon ondoren. Mora eta Fernando Alexandre izan ziren entrenatzaileak. Jokalarietako batzuk, ondorengoak: Itziar Beristain, Amaia Gorriti, Mari Kruz Alvarez, Margari eta Eva Romatet.

92-93an gazteak Ohorezko mailara igo ziren. Hurrengo denboraldia ere oso garrantzitsua izan zen. Lehenengo aldiz 6 talde osatu ziren. Alde iluna ere izan zuen, ordea, urte asko Preferenten aritu ondoren, talde nagusia Regionalera jaitsi zen eta. 99-2000 denboraldira arte ez zuen igotzerik lortu. Hori lortu zuten batzuek, Juan Karlos Aizpurua, Mikel Aristondo, Fran Huertos eta Joxe Antonio Alberdi "Txotxe" izan ziren. Oskar Kastro zuten entrenatzaile.

### 2000-....

XXI. mendeari zelai berriarekin ekin zitzaion. Belar naturala belar artifiziala-

lak ordezkatu zuen. Taldeei dagokieenez, kadeteek 2000-2001 denboraldian Ohorezko mailara igotzea lortu zuten, partidarik galdu gabe, gainera. Preferenteko taldea, aldiz, berriro ere Regionalera jaitsi zen.

Aparteko aipamena merezi dute sortu berri den helduen taldeak, eta hurrekin egindako lanak. Orain bizpahiru urte haurrentzako eskola sortu zen, eta lan horren emaitza da aurtengo denboraldian federatutako taldea ateratzea.

Hauxe da, beraz, gure herriko futbolaren historiaren laburpena. 25 urte beteta, beste horrenbeste eta gehiago betetzea ez litzateke albiste txarra izango.

### Ospakizunak

Egunero 25 urte betetzen ez direla eta, hainbat ekintza egin dituzte: pilotalekuko afaria eta egun oso batean futboleko partidak, besteak beste. Baina prestatuta dute opari hobereana izango dena: Zumaian futbolak izan duen historia biltzen duen liburua.

## HARRAPA ZAK

# BESTE HORRENBESTE BAI?

HASTEKO, ZORIONAK Anadekoei eta Zumaiaokoei. Berrogeita hamar urte eta hogeita bost urte bete dituzte borondate guztiarekin lanean aritu direnei esker. Horrelakoetan askotan entzuten da: "ea beste horrenbeste betetzen dituzuen". Lortuko al dugu? Beste horrenbeste urte irauteko jendearen lana eta borondatea ezinbestekoa izango da. Prest al gaude, ordea, horretarako? Gero eta berekoiagoa da gizartea, nork bere kolkoari besteenari baino gehiago begiratzen diogu. Nirea egin eta kitto!! Hori da gehienon pentsamoldea. Aurreko Baleiken herrigintzari buruzko

aipamen pare bat egin genituen. Ba, elkarte batean eta futbol talde batean aritzea ere herrigintza da. Era askotakoa da herrigintza, aurpegi askokoa. Eta horretan amarrak bezala atzeraka goazen ustea izatea ez da uste ustela. XXI. mendeko erronketako bat horixe izango da: besteen alde lan egiteko gogoia eta ilusioa berreskuratzea. Erroka gogorra bezain polita. Anade eta Zumaia bultzatzen haiei zorionak emateaz gain, oparia ere egingo genieke, ederraskoa gainera: beraiek hasi eta beste batzuek jarraitu duten lan ederrari iraupena, arnasa ematea. Ea lortzen dugun!!

**TXINGURRI**  
Koop. Elk.  
Nekazaritza Injeneru Teknikoak

ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAIA  
GIPUZKOA Kalea, 33 C 3ª 20.800 ZARAVITZ  
(GIPUZKOA)  
Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40

Jardinen diseinu  
... mantentzen  
Nekazaritza zerbitzuak  
Kiral zelaien mantentzen  
Txostenak ...  
aholkularitza teknikoak,  
Balorazioak

## ALTZARIAK OSTOLAZA AROTEGIA



Mota guztietako  
altzariak eta  
aroztegi lanak

Julio Beobide, 1  
TEL: 943 861325

**OPTIKA ZUMAIA**  
Txomin Agirre kaia, 6  
Tel./Faxa: 943-143057  
Z U M A I A

# “Jun hai pikuta!” edo “jun zaite pikuta!” Euskarara

**O**RAIN EGUN gutxi etxeko apalak hankaz gora jartzen ari nintzela, Xabier Azkueren Hita-noa Zumaian

Ibon Manterola  
Hizkuntzalaria



liburuarekin topo egin nuen. Bizpairu urte izango dira argitaratu zenetik, baina uste dut merezi duela Xabierrek jasotakoak gure txoko honetara ekartzea.

Oso interesgarria iruditzen zait liburua, ez Zumaiaiko hitano formak biltzen dituelako bakarrik, baita gure herrian hitanoaren osasuna nolakoa den argitzen digulako ere.

Beste gauza askoren artean hauxe esaten du liburua: 18-30 urte artean dauzkagunok hitanoaren paradigmatik edo aditz formak oro har ez ditugula ezagutzen.

Adibidez, Hondartza lepoño beteta zeon, hika esateko, zenbat gaztek esango luke Hondartza lepoño beteta ziuan? Edo beste hau: nola esango genuke esaldi hau hitano forma erabilia? Kuadrillakuak paolian zeuden euriya hasi zunian. Iruditzen zait gutxik esango lukela Kuadrillakuak paolian zibitian euriya hasi zunian.

Ziuan, zibitian, natxitorrek, natxibillek, gitxikian, nitxizkian, etabar. Zerrenda izugarri luza daiteke, gazte gehienok Zumaian hika nola egin izan den eta nola egiten den ez dakigulako.

Eta zergatik ez ditugu ba zibitian, natxitorrek eta konpainia ezagutzen? Galdera ona!

Jo dezagun berriz ere Hitanoa Zumaian liburura. Datuak zeharo argigarriak dira.

## SEMEARI NOLA HITZ EGITEN DIOZU



## ETA ALABARI




Kontuan hartzen badugu etxea edo familia dela hizkuntza bat ikasteko eremu garrantzitsuenak, edo behintzat, garrantzitsuenetakoa bat (kalean eta eskolan ere asko ikasten dugu, bai), nola ezagutuko dugu ba Zumaiaiko hitanoa gurasoek ez badigute hika hitz egiten? Hortxe dago kokka!

Baina jakin dezagun seme-alabei hika ez egitearen arrazoiak zein diren.

Argi dago hika egiteko ohitura oro har galtzen ari dela

## ZUKA EGITEN BADIEZU, ZERGATIK EZ HIKA



# Nikol Enea



**TABERNA**

Amaiako plaza

# OSTOLAZA

BURDINDEGIA


Aita Mari auzategia, 10 behea  
tel: 943 86 16 66  
e-mail: denda@ostolaza.com  
www.ostolaza.com

# Muxuak


## Sexualitatea

Zumaian. Izan ere, Xabierrek dioenari jarraituz, "niri hala egiten zidatelako" aukerak ere ohiturarekin zerikusia eduki dezake. Atera kontuak orduan.

Gauzak honela, hauxe da ondorio nagusia, Xabierren hitzak geurera ekarrita: "belaunaldi batetik besterako transmisioan galera garrantzitsua egon da, hau da, azken belaunaldian hitanoa aurrekoan baino askoz gutxiago transmititu da", taula honek dioen bezala:



Orduan, arazoa, betikoa, transmisioa, etxea... Noiz konaturatuko gara euskararen sua pizteko eta mantentzeko txinparta eta hauspoa etxea, familia dela!



Haurrek lehen keinuak aho eta mingaina erabiliz egiten dituzte, eta instintiboki amaren bularra bilatzen saiatzen da.

Esan beharra dago amaren bularrak haurrari elikadura eskaintzeaz gain berotasuna eta segurtasuna ere eskaintzen diola. Noiz ez dugu ikusi bularra hartzen ari den haurra loak hartzen? Argi dago, haurrak xurgatzean plazerra sentitzen duela. Ezpainak eta mingaina gozamen iturri dira oso txikitatik, eta bizitza guztian sentsualitatean nahiz sexualitatean garrantzi handia izango dute.

Gainera, jaio orduko gurasoek milaka muxu ematen dizkiote haurrari. Jaio orduko, muxuak berotasuna, maitasuna, onarpena, segurtasuna... eskaintzen digu.

Haurra mundua ezagutzen hasten denean, harrapatzen duen guztia ahora eramaten du, dena probatu nahi du: bere oinak, eskuak, panpinak... Guztia. Bere ahoari esker ezagutuko du bere gorputza, gurasoena... eta geroago gustuko duen pertsonarena.

Muxuak harreman baten hasiera adierazten digute, jolas sexual gehienak muxu emanez hasten dira, bestearen gorputza eta geurea elkartu eta goitik behera muxukatzea bezain gauza ederrik ez dago. Belarriak, ezpainak, lepoa, bularra, bizkarra, sabela... Oso zapore goxoa dute eta imajinario pixka bat gaineratuz gero gustuko duzun janaria (adibidez, izozkia) bestearen nahiz norberaren gorputzean jarri eta hori xurgatzea bezalakorik ez dago.

Muxuak, maitasun eta gozamen muxuak, ematen diren muxuak, jasotzen direnak, adiskidetzeta adierazten dutenak...

Muxuak dira gure eguneroko bizitzako poz-iturri. Loak hartu aurretik muxu gozoak elkarri emanez gero, askoz amets politagoak izaten dira. Ondo lo egin!



Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa  
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 Tel. 943 861412



icardo J. Azcue Yeregui

Abokatua + Aseguruak  
Finika Administrazioilea

biomín aguirre 4. behea  
20.750 zumaia (guzkoa)  
E-mail: rjzcue@euskalnet.net

Tel. 943 862651  
Fax. 943 862748



\* Etxeak eta dendak  
\* Enpresa eta auzo lanak  
\* Erroa garbiketa eta tintaketa

Basadi,3-A  
Tel. 943 861670

Ehiza garaia dala ta,

# zein edo zer ehizatuko zenuke?



**Maitane Urbieta**  
*Nik harrapau ber nuna harrapauta dakat.*



**Haritz Agirre**  
*Nik horretaz eztiat entenditzen. Etzekiat zer ehizatuko nian.*



**Idoia Arrizabalaga**  
*Elkarrizketa eta irtenbide politikoa*



**Martin Amilibia**  
*Politikon bat... Aznar.*



**SIWA**  
Belardenda

**Basadi 9**  
**943 143404**

- Elikadura, belarrak, buztinak, tratamenduak
- Kontsulta naturista
- Osteopatia, masajek
- Dietak
- Estetizista
- Solariuma
- Tai-chi, masaje eta Reiki ikastaroak



**INMOBILIARIA** 943 143361  
**BIDAIAK** 943 143323  
Ortega y gasset, 1

# Ehiza oparoa

**E**HIZEKO BUELTA eginda, hemen datoz ehiztariak harrapakinak eskuan dituztela. Denetik ekarri dute oraingoan, baina animalia gutxi. Beno, batek bi hankako bat edo beste badakar, bere bibote eta guzti. Itxura beldurgarria dauka, benetan. Zer ote da? Putrea? Edo kaioa?

Beste bat pieza bakarrarekin konformatzen da. Baina ezin zehaztu pieza hori zer edo zein den. Beno, zehaztu zehaztu daiteke, baina horrela uztea hobe...

Eskopetarekin perretxiak harrapatzen dituenik ere bada. Horrela edozeinek...

Txori txikiak lagata basurdea ekarri du beste batek. Asterixen antzera, beraz. Zenbat eta handiagoak eta helduagoak hobe!! Bai horixe!!

Hara bestea!! Ehizera joan eta esku hutsik etorri. Mendi buelta ederra eginda dator behintzat. Bada zerbait!!

Beste honek, berriz, bete-betean jo du. Elkarrizketa eta irtenbide politikoa harrapatu ditu. Hori bai dela denon sabela betetzeko jakia. Egia balitz, sikiera!! Putre edo kaio itxurako bibotedun animaliar muturra gehiago okertu zaio. Zergatik ote?



Miren Iribar

*Basurdiak harrapatuko nituzke. Ehiztayak txori txikiyak hartuta bueltatzen dia etxea, baina hoiak ez dia ehiztayak. Hobe zuten basurdiak harrapatzia.*



Markos Gonzalez

*Agian perretxiko batzuk.*

*Tapaia*  
Zaldua

Eribera Kalea 20750 ZEMAILA (Gipuzkoa) Tel. 943 86 19 73

**SAION**  
taberna

ORTEGA Y GASSET, 3

943 860151

ARozTEGIA

Urolo 2000, s.l.

- \*Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- \*Baserrien zaharberritzea
- \*Enbarkazio konponketa
- \*Ate, zokalo tarima eta pertsiak
- \*Armairu enpotratuen aurrealdea
- \*Aroztegi metalikoa

Trenbide kalea, 1

Tel. 943143505





aluga-se!

balake

# Aluga-se

... EDO BESTE ERA batera esanda "alokatzeko dago". Halaxe jarri nahi izan diot izena errentan hartu dudako txoko honi. Baina horretaz gain, lerro hauen betegai izango diren kontuak ere "alugatu" nahiko nituzke. Fado doinua eta bakailu zaporea duen hiri honetatik hilero konturen bat plazaratzen saiatuko naiz, lehen pertsonan. Lisboako kaleetan bai-baita alokairuan hartzeko moduko istoriarik. Eta lehenbizikoa presta daukat.

Ez dakit sekula ibili zareten hiriburu handi eta aldapatsu batean, zoroen gisan alokatzeko etxe bila. Ez dakit. Baina nik pasa berri ditut lau egun honean buru-belarri sartuta, eta kirol gogorra izateaz gain, ondo pasatzeko aukera ere badela esan dezaket. Lagun euskaldun batzuk, etxea utzi zidaten beraiek etorri bitartean; teilatupean dagoen kabi polita. Handik (edo hemendik) abiatuta unibertsitatean ezagututakko bi neska gazte italiarrekin jardun nuen

galdezka Lisboako auzo ugartan: Alfama, Olaias, Campo Pequeno, Graça, Bairro Alto,... Frantzeska eta Aratzeli lagun nituela aurrean jartzen zitzaigun edonori egiten genion galde: tabernariak, amonak, dendariak, etxeakoandreak, mutil gazteak,... Pare bat agentzia pasa genituen, hiru etxe ikusi (zein baino zein ilunago eta txikiago), egunkarietako dozena bat telefonotara deitu eta portugesez ulertu ezinik jardun ostean... beste dozena batean ezezkoa jaso genuen. Edo urrun zeuden. Edo garestiegiak ziren. Edo hemen oso normala dena, altzaririk gabe zeuden...

Iluntze batez lagun euskaldunen mezua jaso nuen, telefono zenbaki batekin: beren etxeajabarean anaiarena. Deitu zita egin, etxea ikusi, eta azkenean beran geratuko garela erabaki dugu. Non, eta lagunten etxea baino bi pisu beherago!! Lau logela ditu ordea, eta gu hiru izan. Horregatik jarri behar dugu lehioan iragarkia: ALUGA - SE.



Horrela gelditu omen da Lisboa, Xabi bertan dagoenetik.

## GIZARTEKINTZA zentru soziala

### KAFETEGIA - JATETXEA

- Eguneko menua
- Plater Konbinatuak
- Kaxuelitak
- Kuadrillentzako afariak

• denontzat irekia

Eusebio Gurrutxaga plaza, z/g Tel. 943 86 17 00



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Gizarte Zerbitzuatarako departamentu

**Ohizko tratamenduez gain:**

# CORO PRIETO

Esteticista

- Laser bidezko depilazioa
- Mikropigmentazioa
- Tatuajeak

Bonifazio Etxegarai plazatxoa z/g Tel. 943 861322

# Ni ta neriak

IEPA DANOI. Ez det uste atal berri honen aurkezpena eitia gure lana danik, hoixe falta gendun! Nahikua badeu orria betetziakin e, nik uste. Halare zeoze esplikau berko deu, gainontzian, "ze iteie azaostro hauek hemen!" batek baino gehiok botako du ta.

Hala omen due intentziyua ditzosozko Baleike hontakuek: hillero kuadrilla batei horri hau eskeintzia, beakin nahi duena iteko.

Nahi deuna esan digue gurire, ostial gabeko konbersazio sakon hoietako bat, eo zeatik ez, zapatu gabian batenbatei ateatako fotografi infragantiya. Zeozerren kejaik izango bagenure, ez da leku txarra ipintzeko, baina gu gean txintxuakin, danakin konforme gaude. Bueno, danakin... mingainetik pixkat tira ezkeo gehitxo igual librauko ginake, ta hori ere ez da komeni.

Horreatikan, magnetofoi grabadore kamuflau bat hartu nere poltsan (nahizta kuadrilla osuan izenian ai hitzeiten, neu bainaiz idazten ai dana, Madame), ta zapatu illuntze partian Erribera kalea erten ginan, ze harrapauko.

Aitortu berra dakat Algorrinea sartzeakuan nahiko nerbioso gendela, ez baikea gu espiatzen eoten gean hoietakuak (nahiz ta ni, Madame, zeoze jarduna izan), ta grabatzeko botoi gorriyai sakatu berrian, stop-ekuai eman nion. Mea kulpa.

Konfiantza pixkat hartzeko, tartian laupabost txikito aurrez jandako txoixo bokalluan aldameneara irentsita, Metronian grabau genun gure lenengo konbersaziyo kamuflaua:

- Hi Oier ateaixkiak bi zurito ta hiru urteko! (izena anonimatuan gorde deu, baina belaxe konturauko zinaten zein dan. Bost lagun kuadrillan, bi zuritua eraten, ta hiru urtekua...klaro ba, hoixe!).

Inpernupekuai pakian laga genien. Telebisiyuan ikusi txleun kamara ixkutuakin ta ohituta, sofistikaziyo gutxikua iruituko



Hurrengoan nortzuei tokatuko zaie? Hauei, agian?

zitzaiera guria, ta hurrengo grabaziya Ganbarakua da:

-Oooaizuuu Blooonkiii, jooorriiiiikuuuu  
ooozzzeeeeejeeoooo

Pilana ustet dala problema. Ta aldau genixkion, baina Leizenian beste iñuxent... (piiii!) harek poltsa gainea bota zin zerbeza katxiyakin, akabo!

Ze ingoyou ba. Hasteko nehikua izango da. Ta uain beste kuadrillan batei pasa berkoyo guk lekukua. Nik ez dakit zeinei, baina Bixentiko kottaduak ba omen du ezaunen bat...ikusiko deu zer erteten dan urreguan!

Bakarrikan esan, norbeai tokatzen zaionian pixkat (akaso dexente) kostako bada ere, geo bestiena letzia politta izan leikela, ta animau, bale? Aittu in Bittoriren kontsejuak!

(Madame Kontxexi, Bixentiko ta Kaxkajo bahituan kuadrilla. Ta Bittorire juntau zaigu azken momentuan.)

Tel. 943 860000

**ERROTA**  
OPIL-OKINDEGIÀ

**EGOKI**

Erloju  
eta bitxidenda

E. Gurrutxaga plazan

Arantza Aramendi

**EGUZKI**  
G. INMOBILIARIA

Harategi kalea, 15 behea  
943 86 22 65 - 609 46 56 37

# Bigarren txapela otarrean

Jokatu berri den banakako Euskal Herriko txapelketa irabazi du Iñaki Osa Goi-koeak. Ez da, nonbait, iaz lortutakoarekin konformatu. Orrialde hau berari laga, eta dotore asko bete digu : Euskal Herriko Txapelketa, Mundiala, Miami...

## EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA

### Finalerdia

Aurtengo txapelketan bi partida bakarrik jokatu ditut, finalerdia eta finala. Lehengo urtean txapeldun izateagatik izan da hori. Finalerdia Landerren aurka jokatu nuen, eta 30 eta 12 irabazi nion. Emaitzagatik ematen du erraza izan zela, baina ez zen horrela izan. Dominatu egin nion, eta behin kontarioa dominatuta askoz errazagoa da. Berak ezin izan zuen ezer egin. Gainera, dena ondo atera zitzaidan. Eta horrek konfiantza handia eman zidan finalerako.

### Finala

Julen Bereikua nuen kontrario. Hasi nahiko gaizki hasi nintzen. Konturatzerako 8 eta 1 galtzen nindoan. Momentu horretan ez nuen behea jo. Pentsatu nuen, "ba, oraindik hasiera duk, eta 30. kartoia urruti zegok". Eta pixkanaka hurbiltzen joan nintzaion, zortzina berdindu arte. Gero berdintasun handia izan zen, oraintxe bera tanto bat goitik, oraintxe ni tanto bat aurre-



tik. Geroago lau tantoko alde atera zidan, 19 eta 15. Baina gogor eutsi, eta azkenean harrapatu eta pasa egin nuen. 30 eta 22 irabazi nion.

Txapeldun nintzela ikusita ez nuen ezer berezirik sentitu. Ezta lehengo urtean ere. Azkenean partida bat gehiago da. Hori bai, txapela eta guzti, baina beste partida baten antzekoa. Esan behar dut, gainera, Zumaiatik jende asko joan zela, eta haien animoek eta oihuek asko lagundu zidatela. Asko eskertzen da zaleen laguntza. Burrundia norbere aldekoa izatea oso ederra da.

## ORAIN MUNDIALA

Aurrekoa ahaztu eta orain Munduko txapelketan buru belarri sartuta gaude. Gotzonekin jokutzen ari naiz, eta orain arte ondo goaz. Lehenengo partida irabazi egin genuen, Konpa eta Aranbururen aurka, 35 eta 24. Ondo hastea inportantea da. Bigarrena ere irabazi dugu, eta orain finalerdiak jokatuko ditugu. Gotzonekin jokatea nahiago dut, batetik ondo ibiltzen garelako, eta bestetik biok zumaiarrak garelako. Herrian dezenteko ikusmina piztu da, eta hori bikote zumaiarra osatzen dugulako da. Bestela ere animatzen gaituzte, baina elkarrekin jokatuta gehiago. Ikusiko dugu zer egiten dugun. Kontuan izan behar da, gainera, aurtengo txapelketa oso parekatua dela. Ez dago faboritorik.

## GERO AMERIKARA

Mundiala bukatuta Miami aldera joango naiz. Han zortzi hilabete egingo ditut, kinielak eta jokutzen. Azkar pasatzen da denbora, ez pentsa. Gainera, zumaiar dezente gaude han inguruan: Gotzon aldameneko hirian dago, eta nirekin daude, Unai, Igor eta Luis anaiak eta, Juan Ramon Mugertza. Hori bai, zeharo desberdina da. Beti giro ona egiten duenez, hara iritsi eta galtza moztzak jantziko ditut.




Mota guztietako alzariak

Xanti Osa

Amaita plaza, 7  
tailerra: 943 860914  
denda: 943 862385

B. Etxegarai 2, behea  
943 86 27 14



GAZTEEN EUROPA

ZALLA  
Taberna - Erretegia

- \* plater konbinatuak
- \* otartekoak
- \* oilasko erreak

San Pedro, 4

Tel. 943 862387

# Paulo Agirrezabalaga zumaiarren artean nagusi



Zakila Bira herriko lasterketa jokatu berri da. Gero eta indar handiagoa hartzen ari den 20 kilometroko lasterketa honetan, zumaiar mordoak parte hartu zuen. Bat aukeratu behar, eta zumaiarren artean onena izan zena aukeratu dugu. Paulok honela bizi izan zuen proba.

## Prestakuntza

Zakila Bira ez nuen bereziki prestatu. Abuzturako bizikleta lagata nuen, irailaren erdira arte gutxi gorabehera. Tarte horretan hasi nintzen pixkat prestatzen, baina ezer berezirik egin gabe, batere behartu gabe. Kilometro asko egiten nituen entrenamenduetan oinarria hartzeko, baina ez nuen saio gogorrik egin.

## Lasterketa

Herriko proba izanda, banuen gogoa zer-bait egiteko. Ilusioak gora egiten du norbere herriko lasterketa izanda. Eta horrela hasi nuen proba. Hasieran aurreko talde batean sartu nintzen. Zenbat eta aurreragoko taldean sartu, orduan eta errazago da. Ikusi nuen talde horretan zein zeuden, eta neure erritmoan joan nintzen, neure lana egitera. Oso ondo nindoan. Hori bai, aldapetan kosta egiten zitzaidan, baina nahiko ondo eusten nion taldeko erritmoari. Beldur pixkat ere izaten duzu, zalantzak eragindako beldurra. Neure buruari galdetzen nion: " orain ondo hoa, baina lasterketa aurrera doan neurrian

ez al duk nekea somatuko?". Horregatik, nahiz eta aurreko taldea ikusi, eta aurrera joateko tentazioa izan nuen, nengoen lekuan jarraitzea erabaki nuen. Bada ez bada ere.

Iraeta aldera iristean konturatu nintzen lehengo urtean baino azkarrago gindoazela. Aizarnazabalerako bidean, 9.kilometroan edo, errepideak beherantz egiten duela baliatuz aurrera egitea erabaki nuen. Halaxe prestatu nuen lasterketa. Aurreneko 10 kilometroetan talde batean lasai antzera joan, eta gero aurrerantz egin. Esan bezala, saiatu saiatu nintzen, baina alperrik, han ez zegoen bromarik. Bizpahiru kilometro talde buruan egin nituen, baina jai zegoela ikusita, taldearen atzealdera joan nintzen. Horrela Oikira arte. Epiola baserritik aurrera bideak beherantz egiten du, eta han berriz saiatu nintzen. Baina berriz ere kale!! Oso azkar gindoazen. Gainera, Beduako aldapa falta zen, eta errespetoa ematen zidan horrek. "Rigor mortis" da Beduako aldapa. Baina hori ere igo genuen. Hala ere, denok gindoazen larri samar. Orduan aprobetxatu nuen alde egiteko. Maldan behera ospa egin nien taldeko besteei. Metro batzuk hartu eta aurrerantz jo nuen. Baina justu-justu iritsi nintzen helmugara. Erribera kalean bukatu beharrean Talaipen bukatu bazen, taldeak harrapatu egingo ninduen. Izugarria izan zen Erribera kaleko giroa. Jende piloa eta denak bultzaka. Azkenean, hamargarren bukatu nuen, ordubete hamaika minutu eta hogeitasegundoko denbora eginda. Gustura gelditu nintzen. Hainbeste entrenamendutan egindako lanaren ordaina biltzea oso pozgarria da.



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAI A MOTOR

Santixo auzoa, 22  
Tel./Faxa: 943 143143

ILEAPAINDEGIA

IRUITZ



San Telmo, 12  
Tel. 943 860760

**ITSASKI**  
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g  
Tel. 943 143058


# ZUMAIAKO OSPITALEAK

HIRIBILDUA SORTU zenetik ospitalea izan zuen Zumaiak -Beheko Ospitalea eta handik pixka batera beste bat ere bai -Goiko Ospitalea-. Ez bata eta ez bestea ez ziren osasun instalazioak izan, udalera iristen ziren kanpotarrei eta ibiltariei barrera emateko lekuak baizik. Aditu batzuen ustez Santiago Bideko erromesei barrera emateko eraikinak ziren. Batak nahiz besteak XVIII. mendearen amaiera arte behintzat iraun zuten eta, dirudienez, ordurako beren funtzioa nolabait aldatuta zegoen.

1890eko hamarkadakoa da Zumaiako lehenengo benetako ospitalea: kutsatutako ospitalea. Eraikin hau egin zen arte, izurrite desberdinez gaixo kutsakorrei Eusebio Gurrutxaga jaunak San Telmo kalean zuen etxean ematen zitzairen barrera eta arreta. Baina konponbide hau ez zen

egokiena eta Hiribilduak etxe-ospitale baten beharra sentitu zuen. Kontuan izan zen lehenengo aukera -arrazoi ekonomikoek bultzatuta, nagusiki- Gurrutxaga jaunak zeregin hauetarako lagatzen zuen eraikina erostea izan zen. Zumaiar honekin negoziatzeko batzorde bat izendatu zen eta honek eraikina 5.000 pezetatan erosteko proposamena egin zion Gurrutxaga jaunari. Diru kopurua txikia iruditu zitzaion Gurrutxaga jaunari eta, ondorioz, ez ziren adosjarri.

Gurrutxaga jaunaren erantzuna ezezkoa izan bazen ere, hilabete batzuk beranduago Udala berriro saiatu zen eraikina aurrez proposatutako zenbatekoaren truke eta baldintza berberetan erosten. Orduan gainera, erantzuna ezezkoa bazen, kutsatutako ospitalearentzako eraikin berri



*ilargi*

Alai auzategia, 2  
Tel. 943 14 33 24

**Itzurun**  
ATEAK

- Material guztietako leihoak: PVC, poliuretano, aluminio eta egurrezkoak
- Armairu enpotratuak
- Tarima, ate eta era guztietako pertsianak
- Lanen zuzendaritza

Bezeroak gustura uztea da gure helburua

Itzurun zuhaitzbidea, 2 943861565 - 943143446

bat egiteko erabakia hartuko zuela jakinarazten zion Hiribilduak. Hala ere, Udalak eraikinaren salmentarako proposatu zion prezioajustua iruditzen ez zitzaiola esaten jarraitu zuen Gurrutxaga jaunak eta, ondorioz, kutsakorrentzako ospitale berri bat eraikitzea behartuta ikusi zen Udalak.

Horretarako aukeratu zen lekua Andreama Alden JosÈ Maria Aparicio jaunak zituen lurrak izan ziren. 72 postura/landare zituen lurzatiak eta 1.000 pezetaren truke erosi zitzaion. Emandako hurrengo urratsa ospitale berriaren eraikuntzarako erematea ateratzea izan zen. Enkante oso borrokatua izan zen eta eskaintza batzuk egin ondoren azkenean Hermenegildo Txapartegi zumaiaarri esleitu zitzaizkion lanak88.

Txapartegi jaunak JosÈ Maria Mujika maisuaren proiektuaren arabera hasi zuen eraikuntza. Baina azken orduko ezustekoek hasierako proiektuan aldaketa batzuk egitera behartu zuten. Ondorioz, esleipen aurrekontuan sartu ez ziren obra batzuk gehiago egin behar izan ziren eta eraikuntza garestitu egin zen. Eraikitzaileak zirkular batzuk bidali zituen, aurreikusi gabeko gastu haiek ordaintzen laguntzeko Udalari aurrerapen bat eskatuz. Dirudienez, Udalak aurrerapen horiek eman

egin zizkion baina likidazioa egiterakoan arazoak izan zituzten bien artean. 1896. urteko apirillean Txapartegik oraindik zor zitzaizkion zenbatekoak ordaintzeko eskaera egin zuen milagarren aldiz baina Udalak ez zion kasurik egin. Urte eta erdi beranduago Txapartegik ez zituen oraindik zor zizkioten zenbatekoak jaso eta Hiribilduarekiko zituen bidÈ guztiak agortu zitzaizkionean Probintziako Gobernatzailerengana jotzea erabaki zuen hark auzian bitarteko lana egin zezan. Honek ondorengo jakinarazi zion:

"(...) Probintziako Batzordearen erabakiz, 1897ko otsailaren 18an Korporazio horrek hartutako erabakia baliogabetzen da eta niri (Txapartegiri) Kutsatuen Ospitalearen barnean egin diren eta eraitsitako horma barne hartzen duten obren zenbatekoa ordaintzeko agintzen da"89.

Kutsakorren ospitalean erreforma batzuk egin ziren 1934. urtean eta ordutik Lazareto Ospitaka deitu zitzaion. Hamabost urte beranduago ospitalean birmoldaketa berriak egin ziren. Bi kasuetan, Onegintza (Benefizentzia) Batzordearen helburua, bertan zeuden gaixo kutsakorrak "txukuntasunez egotea" izan zen90.

Zumaia Historia liburutik hartutako pasartea.

 <p>Basadi Auzategia, 10 behea Tel. 943 862051</p> <p><b>SUKALDEKO ALTZARIAK ARMAIRU ENPOTRATUAK</b></p>	 <p><b>Auto-konponketak</b> <b>ELKAR</b></p> <p>Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01</p>  <p><b>PEUGEOT</b></p>	
<p>dekorazioa</p> <p><b>ALBERDI</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Eskaiola</li> <li>• Pladur-a</li> </ul> <p>696 726188 943 143261</p>	<p><i>Alberdi</i></p> <p><i>Gizonezkoen moda</i></p>  <p>Erribera kalea, 6 Tel. 861155</p>	<p><b>INMOBILIARIA</b></p> <p><i>Amara</i></p> <p>Julio Beobide, 3 behea 943 86 23 01</p>
<p><i>ileapaindegia</i></p> <p><b>I Z E T A</b></p> <p>Urumea, 6 Tel. 943 862083</p>	 <p><b>LEIZE</b> taberna</p> <p>Juan Belmonte, 6</p>	 <p>taberna <b>JUSTA</b> eguneroko bazkariak</p> <p>Erribera kalea, 20</p>

# Barruko labirintoak

Oroitzapenak, amesgaiztoak, irrikak, abesti madarikatuaren ondorio iraunezina, pasio isilak, izan zitekeena baina izan ez zena, gure hartzaro galduaren xalotasunari behin betiko agurra... Hori dena jaiotzen da ametsek azkeneko bidaia aurrerazten duten denbora tarte laburrean. Pantailan, behintzat, horrela definitzen du emoziozko labirintoen sortzaile den David Lynchek. "Mulholland Drive" Hollywood deritzon Babilonia moderno horren alderdi garratzena da; aktore izan nahi duen emakume batek bere ilusioak berreraikitzeke eskubidea eskatzen du. Emakume ezezagun horren bizitzaren kronika asmatua da. Azken finean, zineak azken urteetan eman duen maitasun istoriorik mingarrietakoa.

Lynchek "Tercipelo azul" filma ahaztezinetik hartzen du Enyd Blytonek liburuetarako sortutako giro magiko bezain

gogorra. Giro hori baliatuta murgiltzen gaitu, hain zuzen, zentzuaren infernuetara egindako jaitziera berri eta dudazko horretan. Gainera zuzendariaren egonezinekin bat egiten duten bi aktore dira protagonista: Naomi Watts-ek interpretazioaren erregistro guztiak gainditzen ditu antologikoa den pertsonaiarenganaino iristeko; bestalde, Laura Elena Harring zoragarriari nahikoa zaio bere banpiresa itxura misteriosua sinesgarri bihurtzearekin.

**"Mulholland Drive"**

Zuzendaria:  
David Lynch

Aktoreak:  
Naomi Watts,  
Laura Elena Harring,  
Justin Theroux

Urriak 24, osteguna,  
22:15etan,  
Aita Mari zinean



- Arrainak eta haragiak aukeran
- Eguneko menua
- Jangela klimatizatua

*Juaristi*  
**JATETXEA**

Basadi auzategia, 10 Tel. 943 861853

**Zumaia Hotela**

Alai Auzategia  
20750 Zumaia (Gipuzkoa)  
TEL: 943 14 34 41  
FAXA: 943 86 07 64



# Bizitzen saiatu nahian

"ELLING" NORVEGIAKO komedia osasungarria da. Traumaz betetako bizimodua bizi ondoren, bi gizonzkoen bizitza nola-koa den kontatzen digu. Abentura bat azkenean. Ordura arte ezezaguna zitzairen munduan ibiltzen ikasi beharko dute. Elling eta Kjell Bjarne bikiak diruditen bi pertsona dira. Inkomunikazio luzeegia nozitu dute biek, eta klinika batean gela eta konplizidadeak banatu ondoren, bergizarteratzeko egitasmo baten barruan, pisu berean jarriko dituzte bizitzen. Ondorioz, poliki-poliki eguneroko bizitzan barneratuko dira. Beraien xalotasunak, eta batez ere, gauzak ikusteko duten ikuspegi murriztuak egoera parregariak sortzen ditu, oso ondo islatuta daudenak, gainera. Eguneroko

ko ekintza arruntek (etxetik ateratzeak, erosketak egiteak edo telefonoz hitz egiteak) itxura epikoa dute. "Elling"ek ez dauka Estatu Batuetako antzeko filmek duten itxurazko minberatsaun hori. Buru-belarri murgiltzen da gero eta gizatasun gutxiago eta inkomunikazio gehiago duen gizartearen barruan dagoen gutxitu fisikoaren eta psikikoaren beste errealitate horren alderdi osasungarriagoa erakutsi nahian.



**"Elling"**

Zuzendaria:  
Petter Naes

Aktoreak:  
Per Christian Ellefsen,  
Sven Nordin,  
Per Christensen.

Azaroak 7, osteguna,  
22:15etan,  
Aita Mari zinean



**AUTO-ESKOLA**



- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua
- Praktika eta azterketak Azpeitian
- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

**ZUMAI A**

Basadi, 12 behea Tel. 943 861018



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1  
Tel. 943862309



### ERAKUSKETAK

- Urriaren 21etik azaroaren 1era, Alondegiz Zaharrean, Anade Elkartearen 50. urteurrena dela-eta erakusketa: argazkiak, marrazkiak eta antzinako ehizerako eta arrantzarako tresneriaren erakusketa.
- Urriaren 27an, igandean, PERRETIXIKOEN erakusketa pilotalekuan (Natur Taldea).
- Azaroaren 4tik 17ra, Alondegiz Zaharrean, "TXOTXONGILOAK ERE ARTEA" erakusketa.

### IKASTAROA

- YOGA, kultur etxean, astearte eta ostegunetan, 18:30etan.
- PINTURA TAILERRA, Foronda kultur Etxean, astelehen eta asteazkenetan, 15:00etatik 16:30etara; eta astearte eta ostegunetan 18:30etatik 20:00etara. Izen ematea Forondan (943861056).
- ARDO DASTAKETA. Azaroaren hiru larunbatetan. Dohainik.
- FILMAK AZTERTZEKO TAILERRA. Informazio gehiago Forondan (943861056).
- BAINIKA. Urriaren 25etik maiatzaren 6ra, ostiraletan. Izen ematea Foronda

Kultur Etxean (943861056).

- KONTROL MENTALA, urriaren 19tik azaroaren 30era, 10:30etatik 12:00etara, larunbatetan. Izen ematea Foronda Kultur Etxean (943861056). Dohainik.
- LUZAKETA IKASTAROA. Urriari. Informazio gehiago Lubaki Kiroldegian (943862021) eta Udaletxean (943865025).

### KONEKTA ZAITEZ

- Urriak 14-28: 22 orduko modulua (internet), goizeko 9:00etatik 11:00etara
- Urriak 15-31: 22 orduko modulua (internet), 16:00etatik 18:00etara.
- Urriak 21-25: jubilatuentzako 10 orduko ikastaroa (internet), goizeko 11:00etatik 13:00etara.
- Urriak 25: "kutxa" 2 orduko ikastaroa, 16:00etatik 18:00etara.
- Urriak 11: ESI azterketa (IT txartela), goizeko 9:00etatik 11:00etara.
- Urriak 28: ESI azterketa (IT txartela), 18:00etatik 20:00etara.
- Urriari zehar mintegiak.
- Informazio gehiago kzgunean (943862866).

### BESTELAKOAK. URRIA

- 18, ostirala: EL CLUB DE LA COMEDIA-ren "NOCHES DE CÓMICOS" antzerkia, Maria eta Jose ikastetxea, gaueko 22:00etan.
- 19, larunbata: Anade Elkartek antolatuta:
- 24, osteguna: 22:15etan zine-forum saioa "MULHOLLAND DRIVE" (David Lynch).
- 3-7 urte bitarteko haurrentzat HERRI JOLASAK ETA GORRITI BERE ABEREKIN, Martinez Kleisser eta Beheko Plazan.
- 14-20 urte bitarteko gazteentzat MUS TXAPELKETA, Anaden, arratsaldeko 15:30etatik 18:30etara.
- 20, igandea, Aita Mari antzokian HAUR ANTZERKIA, eguerdiko 12:00etan, Gorakada antzerki taldearen "AHATETXO ITSUSIA".
- 25, ostirala: Alondegiz Zaharrean, Anade Elkartek argitaratu duen liburuaren aurkezpena. Elkarteko web orriaren aurkezpena, marrazki lehiaketa eta Argazki Rallyeko irabazleei sari banaketa.
- 26, larunbata: IRTEERA, Artium museoa eta Santa Maria Katedralera. Izen ematea Foronda Kultur Etxean

(943861056) eta Turismo Bulegoan (943143396), urriaren 14tik 23ra.

- 25, ostirala: arratsaldeko 19:00etan, Indamendi Elkartean, Natur taldearen DIAPOSITIBA EMANALDIA, Aitor Leizaren eskutik. Ondoren, perretxiku dastaketa.
- 26, larunbata: goizeko 8:00etan (taxi-geltokian), Natur Taldearekin perretxikoak biltzeko IRTEERA. Arratsaldean, bildutako perretxikoen sailkapena.

### BESTELAKOAK. AZAROA

- 7, osteguna: 22:15etan zine-forum saioa "ELLING" (Petter Naess).
- 9, larunbata: Udaletxean, arratsaldeko 19:00etan ANGEL ENBILEN PARTITURA BILDUMAREN aurkezpena.
- 9, larunbata: IRTEERA, Arte Ederrak eta Guggenheimera. Izen ematea Foronda kultur Etxean (943861056) eta Turismo Bulegoan (943143396), urriaren 28tik azaroaren 6arte.
- 9, larunbata: Amaiako Plazan, goizeko 11:00etatik 13:00etara eta arratsaldeko 16:00etatik 18:00etara, ARTIUM MUSEOKO AUTOBUS TEMATIKOA.

# Arkupe



Okindegia  
eta gosariak

Kale nagusia, 2 Tel. 943 861521

# ad

## AUTOS ZUMAIA

Urola plaza 3-5  
Tel: 943 86 14 85

# TXALAPARTA

OPARIAK

Angeles Sorazu, 2  
Tel. 943 143089

# Galdona



Mendaro marinela, 1 Tel. 943 861117  
943 143346  
Juan Belmonte, 15 Faxe. 943 861330

# GANBARA

Taberna

Juan Belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57



Baselvi Auzategia, 15 Tel. 943 14 34 84 ZUMAIA

amaiako plaza, 2  
Tel. 943 143278

# Maite

ileapaindegia

# ekin

ISTALAZIO ELEKTRIKOAK  
TELEKOMUNIKAZIOAK  
/elektrizitatea, s.l.

Erribera kalea 18 Behe TII/Fax: 943 143097  
20.750 Zumaia ekin@ekinind.com

Estalatzaille/banatzaille ofiziala



# ert

informatika

tresna digi  
internet  
scanner



Eusebio Gurrutxaga, 6  
Tel. 943 14 33 95



Larunbat arratsaldetan irekita!!

# Ardantzabide Altzariak

Sukaldeak  
Egongelak  
Era guztietako logelak  
Mahaiak  
Ateak  
Leihoak  
Horma armairuak  
Tarimak  
Era guztietako arrotz lanak

Hego kalea, 4 (estazioa) 5. pabilioia  
Tel./Faxa: **943 86 25 32**  
TAILERRA: Santixo auzoa40



Alai auzategia, 12 Tel: 943 86 02 58 ZUMAIA

Itzurun zuhaitz bidea, 1 Tel: 943 86 24 30 ZUMAIA



• Txarkuteria bikaina  
• Inguruko baserrietako haragirik onena

• Geuk aurrez prestatutako jaki goxoak